

Arrasate

PRESS

1998ko
urriak 8
466. zomb.



**Etxebizitzak:
nahi bai,
baina...**

**IKUSPEGIA: IKER BARANDIARAN • KULTURA ELKARRIZKETA: ENRIKE DAPENA
EUREN IKUSPUNTUTIK: JON ALDANONDO • KIROLAK: ERRUGBI TALDEA**

Atsedena hartzeko



BEHIN BETIKO SOLUZIOA
%100 autoerregulagarria


ordua iritsi da.



Zure Ametsik Ederrenak
Jaiotzen diren Tokian.



Neurriko Armairua behar baduzu...



...zatoz Onenak ezagutzera.

Izpizua, 5
20120 **HERNANI**
Tel.: 943 556 201

Ferrerías, 28 C
20500 **ARRASATE**
Tel.: 943 797 692

Pº Colón, 20 (GROS)
20002 **DONOSTIA**
Tel./Faxa: 943 321 693

Hizkuntza eguneratu

Txikitatik euskaraz hazi nintzen arren, hainbat ikasketa gaztelaniaz egin behar izan nituen ikastetxe batzuetan. Adin jakin batzuetan, gainera, kaletarren giroan euskara alde batera uzteko ohitura inozoa genuen. Ondorioz, gaztelaniarako joera handia hartu nuen garai batean.



Iker Barandiaran

tarteko, hobetu egin dut neure euskara maila. Hau lortzeko euskarazko prentsa eta beste argitalpenak irakurtzeko ohitura handia hartu dut azken urteotan, nahiz eta gaztelaniaz irakurtzen dudana oraindik gehiago izan.

Badakit orokorrean ez dela asko irakurtzen, are gutxiago euskarazko idatziak. Egia da euskara

hutsean plazaratzen den eskaintza ez dela hain oparoa eta are gutxiago osoa. Nolabaiteko meritua duen arren, ezin dugu euskara hutsean egiten den gutzia goiraipatu. Hemengo produktu edo

sormena ugalduz doa, baina ez jendearen jakinmin eta beharren pare.

Egon badago herri aldizkariarik, baita herri telebistak eta ETB bera ere, baina hartzaileen atal txiki bat besterik ez dute asetzen. Prentsari

dagokionez, *Euskaldunon Egunkaria* dugu ia salbuespen bakarra, nahiz eta *Garak* orain eta *Eginek* aurrerago, zertxobait euskaraz ekarri. Liburuen kasuan, poliki-poliki parekatuz doaz errealtatearekin. Gai eta ikuspuntu asko jorratzen dituzte, eskaintza asko zabalduz. Aldizkarietan bakoitzak bere esparru zehatzari eusten dio; beren sailaren baitan ez dute ia lehiarik eta ez dira hortik mugitzen. Seriotasun larregi eta malgutasun gutxi somatzen diet.

Euskal Herria ez da herrialde sinbolikoa. Txikia izanik ere, badu nahiko ekimen eta bizitza. Hau guztia islatzea falta zaigu.

Hizkuntza baten egoera normalizatzeko, epaitegi, lantoki, administrazio, ikastetxe, etabarretan legeztatu edo indartzeaz gain, ikus-entzunekoen eskaintza askoz zabalagoa lortu beharko litzateke, herritarren bizitzako arlo, joera eta motibazioak jaso eta haiek identifikatu ahal daitezen. Beste hizkuntzen eskaintza zabalak hor segituko du, baina geurean aukera askotarikoak emanez gero, luzera hizkuntza bera aberastu egingo dugu. ■

Geroago, unibertitate ikasketak egiteko unean, euskara aukeratu nuen ikasteko. Euskal Herriko Unibertsiteatea, izenez hala bada ere, ez da lekuri aproposena bertako hizkuntzan ikasteko. Galdetu, adibidez, Arte Ederretakoei eta,

bereziki, Zientzieta-koei. Ni, ordea, nahiko zorionekoa izan naiz, zentzu horretan ez baitut arazo handirik izan.

Aspaldian, beraz, ikasketak, bertako giroa, lagunak eta nire ahaleginak

“Seriotasun larregi eta malgutasun gutxi somatzen diet euskarazko aldizkariari”

“Iaz soldadura ikastaroa egin zuten 15 emakumeetatik 14k lana aurkitu zuten. Horietatik 10ek lanean segitzen dute”

Marga Garmendia



ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Olatzora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89 E-mail: arrasatepress@euskalnet.net Tel. mugikorra: 908 39 78 86

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariek:** Marijo Degraças. Ubane Madera. Maider Osa. **Publizitateak:** Nerea Zallo. Arantzazu Lagunilla. Arantza Arrolabe. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Administrazioa:** Maite Urriolabeitia (Tel.: 943 71 23 90). **Disainua:** Maddi Trubuelo. **Asteburuetako berriemak:** Monika Belastegi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Inzar, Udaleko Gazteria Saila, Iker Barandiaran, Karmele Perez, Jose Mari Velez de Mendizabal. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.400. **Lege-gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. **Frankoeko kontzertatua.** **Inprimategia:** Ger-tu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkariari adierazitako esanien eta zintzen erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Maddi Trubuelo.



%60

Berriak albistegia da jendeak gehien ikusten duen TB saioa

Berriak informazio saioa da arrasatearrek gehien ikusten duten saioa ATBn. Horixe dio EHUKo Soziologia Departamenduak egin duen inkestak. %75ek, asteen bi egunez ikusten dute ATB. Horien erdiak asteen bost egunean.

BAZENEKIEN?

Elizaren gainbehera

Gerraurrean eta gerraosteko urteetan elizaren eragina izugarria izan zen. Modu askotan neur zitekeen eragin hori: ondasunak (elizak, ikastetxeak, lurrak...) eta herritarrekiko eraginean, besteak beste. Kristauen kontrol zorrotza eramaten zen.

Hirurogeigarren hamarkadan, ostera, eragina galtzen hasi zen eliza. Baita Mondragoen ere. Hil berri den Demetrio Garmendiak neurketa batzuk egin zituen eta *Arrasateko Fraideen Kronika* liburuxto argitaragabera ekarri.

1961ean 3.200 kristau zenbatu zituen, San Frantziskora meza entzutera joan zirenak. Urte hartan 8.000 bat jaunartze eman zituzten. Bost urte geroago, berriz, jaunartzeen kopurua 4.820koa izan zen. Ia erdira etorria zen.

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

- Ostirala, 8**
 • Morales, San Andres
- Larunbata, 9**
 • Azkoaga, Ferrerías
- Igandea, 10**
 • Azkoaga, Iturriotz
- Astelehena, 11**
 • Korkuera, Musakola
- Astearte, 12**
 • Irizar, Erguin
- Asteazkena, 13**
 • Amezua, Santa Marina
- Osteguna, 14**
 • Zabala, Zarugalde

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
 Igualarria 943 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 943 79 39 00
 (emakumeak) 943 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11

Gurutze Gorria

Bergara 943 76 55 76

DYA

Antzuola 943 78 71 57

Anbulatorioak

Arrasate (Larrialdiak) . . . 943 03 53 00
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria 943 03 52 50
 • Espezialitateak. 943 03 53 11
 • Ikuskatzailea 943 03 53 52
 • Kanpoko kontsultak: . . . 943 03 53 11
 • Fax zenbakia: 943 03 05 14
 Aretxabaleta 943 79 74 58
 Aramaio 945 45 51 16

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44

Udaltzaingoa

Oñati 943 78 04 11
 Bergara 943 77 91 06
 Arrasate 943 79 14 39
 Aretxabaleta 943 79 10 52
 Eskoriatza 943 71 44 07

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea . . . 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) . . . 943 79 09 00
 Argindarra (Iberduero) . . . 943 12 01 62
 Gasa 900 40 05 23
 943 79 78 44
 943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
 PESA. 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentruak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburutegia

Monterron 943 77 01 05

Irratia

Arrasate Irratia 943 79 58 77

OSAKIDETZAREN DESLANAK

Arrasateko preso bat naiz, Alikanteko ero espetxean. 95ean guardia zibil bat erasotu nuen. Bada, bakarrik joateagatik edo, psikiatra eta epaile erdaldunei euskaraz egiteagatik, kontua da erotzat jo nindutela.

Badaramat lau urte preso. Hemengo psikiatra taldeak berretsi egin behar du ni Euskal Herriratzea zorionez, erotxe batera, espetxea lagata. Berretsi diot, zeren jada eman zuen bere onspena orain dela bi urte.

Epaileak onartu egin zuten psikiatren gomendioa, baina hara non ni kartzelatik kanporatzeko oztupoa Osakidetza-tatik datorren. Etxetik gertu eraman nahi ninduten, erotxe batera. Baina Osakidetza ez zen nire kargu egin, askatasunean egongo nintzatekeen erotxe ez baita espetxea bezala. Irtetea errazagoa da. Kontua da Osakidetza ez zuela baiezkorik eman. Osakidetza kartzeleroko?

Langabeziaren desgrazia izan dut urteetan eta, jakina, gu bezalakoek gutxi kotizatu dugu. Baina hau espetxea da eta urruti dago. Nire herriak ezin nau jaso? Hau desgrazia! Edo torlojo bat falta da Osakidetza?

Bi urte espetxeratua. Zer izango da oraingoan? Deserrian jarraitu beharko dut? Edo jakingo dute baloratzen nire ardura hartu behar dutela Euskal Herriak nahi duela, nahi naudelako?

Hemen gelditu behar ote

naiz oraingoan ere ala baiezkoa emango dute? Gutun honek zerbaiteko balioko ahal du!

Jon Otero Uribarren

ERTZAINZAREN JARRERA ZEIN DA?

Gutun honen bitartez, irailaren 27an Ertzaintzak egindako ekintza bortitza salatu nahi dugu. Aipatutako egunean eta hildako guda-rien omenez, urtero legez, adin guztietako 500 lagun abiatu ziren Sebero Altube enparantzatik kale agerraldian, hainbat lekutan loreak uzteko asmoarekin.

Baina Maalako biribilera heldu baino lehen, ertzain kaputxatu talde bat kale agerraldia geldiarazi eta inolako abisurik eman gabe, tiroka eta kolpeka hasi zen. Ondorioz, pertsona bat atxilotu zuten eta hiru zauritu, horietariko bat Gasteizko ospitale batera eraman behar izan zutelarik. Arrazoia: agerraldia Ertzaintzari ez jakinarazi izana.

Ulertezina da, ordenu publikoa eta legea errespetarazteko funtzioa duen poliziak —hala dio behintzat ordenamendu juridiko espainiarak— horrelako jokamolde bortitza, desproporzionatua, giza eskubideen —adierazpen askatasuna, agerraldietarako askatasuna, integritate fisikoa errespetatua izateko eskubidearen— aurkakoa eta herriaren bakea haustekoa egitea.

Bortitza diogu, oso jarduera biolentoa delako normaltasun osoz manifestatzen

ari den gizatalde bati manifestatzeko eskubidea ukatu, jendea beldurtu, porrazoka eta pilota gomak jaurti, identifikatu nahi ez duen pertsona lepotik heldu eta arrastaka atxilotzea. Desproporzionatua dela esaten dugu, goma pilota bat bost metrora jaurtitzeak ondorio oso latzak ekar ditzakeen ekintza delako. Eta bakea haustekoa dela diogu, herritarrengan ezinegona, beldurra sortzen duelako, horrek herriko giroa gaizto dezakeelako.

Ezker abertzalea urte luzeetan zehar jasan du Ertzaintzaren indarkeria; hau ez da berria (bai salatzeak, noski!). Iraganen EAJren eta "pacto antiterrorista" delakoan estrategia zela tarteko, Ertzaintzak ezker abertzalea jipoitzen zuten. Baina ulerkaitza iruditzen zaigu gaur egun bizi dugun egoera politiko berri honetan horrelako gertakariak pairatzea.

Gaur, Lizarra-Garazi hitzarmena dugu euskal demokraziaren alde egiteko tresna, Euskal Herriari hitza errespetatu behar zaiola esaten duen akordioa. Ez da hau herriaren hitza bortxatzeko indarkeria? Hau da Ertzaintzak egiten duen hautua egoera honetan? Ezker abertzalean argi dakusagu euskal demokraziaren eta herri honen eraikuntzaren alde lan egingo dugula, egoera antidemokratikoari aurre eginez!

Arrasateko Herri Batasuna

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
 Tel.: 943 79 81 82

UGARAN
 jatetxea

Garagartza auzoa
 Tel.: 943 79 76 58
 ARRASATE

M

MEMESA

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

Zein da asmakizunik onena, garbigailua, hozkailua ala kumuna?

Asmakizun txikiek aldatu egin dute gure eguneroko bizimodua.



Mari Jose Prieto
(43 urte)
Etxekoandrea

Garbigailua, kumuna eta hozkailua.




Harkaitz Varona
(20 urte)
Ikaslea

Kumuna, hozkailua eta garbigailua.



Mertxe Bertuon de Gebara
(39 urte)
Langilea

Kumuna, garbigailua eta hozkailua, nahiz eta denak izan garrantzitsu.



Mari Angeles Garate
(56 urte)
Langilea

Kumuna derrigorrezkoa higiene aldetik. Garbigailua eta hozkailua ondoren.



Jose Diez
(50 urte)
Langilea

Garbigailua, kumuna eta hozkailua.



Jose Angel Lopez
(55 urte)
Erretiratua

Kumuna, garbigailua eta hozkailua.



Igor Pacios
(19 urte)
Langilea

Hozkailua, garbigailua eta kumuna.



Isabel Apaolaza
(36 urte)
Langilea

Garbigailua emakume naitenez, hozkailua bigarren eta kumuna azkena.

ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A

Udazkenarekin batera, euria datorrela?
Ez kezkatu. Alemaniatik ekarritako **zapatak** ditugu.
Aproposenak euria denean kalera irteteko.

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 34

GANBARA

Enmarkazioak Arte ederretako materiala
Laminak Arte lanak (margo lanak)

Erguin, 2 behea • Tel.: 943 77 12 37 • 20500 ARRASATE

USTEAK USTE

*Nire anaia
Ramon*

Biteri eskolako hormetan gogorazten ditut Ramonen lehen marrazkiak, arkatzez eginak. Dohain berezia zuen marrazki ederrak sortzeko. Gu beti haren inbidiaz.

Etxeko errebeldea genuen, makuluetan ibili zen garaian lasterka inork baino bizkorrago eta egurra ere majo banatzen zuena. Bihurria izaki, baina, hartu ere hartzen zuen.

Sukaldean genuen marmolezko mahaietan ikasi gutxi eta marraztu piloak egiten zuen. Hazi ahala, ordea, utziz joan zen arkatza. Bergarara joan eta umea jaio zitzaionean aldatu egin zen: lasaitu eta gurasotu.

Orain lau bat urte, umea nahiko hazirik ordurako, margotzeari ekin zion berriro. Zalantza askorekin hasieran, aldemenekoak harriz gero. Ramon errebeldea agertu zaigu berriro, bere margolanetan orain.

Gaur Arrasatera itzuli da. Bi astez Harresi aretoan izango ditu bere lanak eskegita. Biteri eskolako garaian bezala, inbidiatan utziko gaitu, edertasuna zer den badakielako.

Gonbidatuta zaudete.

Joxe Aranzabal



Orain hamar urte

* Jon Aldanondo

Gogoan dut Arrasatera lan bila etorri nintzen eguna. Nire amak utzitako Seat 850 gajoarekin nolabait Deskarga pasa, Portaloi aurrean geratu eta ATBez galdetu nuenekoa. Ikasten genditza Arrasaten telebista bat bazela eta, herri honetara etorri nintzen ikasitakoa praktikan jarri nahian. Ezagutu nituen lehen arrasatearrak Jose Felix Diaz de Tuesta udaleko euskara teknikaria, geroago Asier Aranguren orduko ATBko zuzendaria eta gero gainontzeko teknikariak, atzeraxeago lankideak izango zirenak. Orduan ezagutu nuen Anne Igarteburu ere: itxura ona kamera aurrean, baita atzean ere...

Etxean edozeinek eduki zitzakeen gailuekin egiten genuen lana: asto lana. Hura bai meritua. Ba ziren egunak, argiak salto edo bideoak txof egiten zutenekoak eta, noski, egun haietan emisioa zalantzan jartzen zen. Baita azken minutuetan programak airera aterako ote ziren itxu-

rarik ere ez zutenekoak, baina azken unean "voila!"... eta sekula baino saio itsurosoak aterako zirenak.

Ia hamar urte ez dira alferrik pasa. Erruetatik ikasten dela esaten da eta ez da gezur handia.

Zorionez, edo zoritxarrez, ni neu naiz urte gehien etxe honetan lanean daramana: ia bederatzi urte! Laster hamar urte egingo ditugun honetan askotan atzera begiratu eta izan duen itxura aldaketa datorkit burura. Ospital zaharreko estudioak ikusi nituen lehenengo egun hura gaur bizi izan banu bezala dut gogoan. Ez zen telebista batek

“
Etxean edozeinek eduki
zitzakeen gailuekin egiten
genuen lana: asto lana.
Hura bai meritua.
”

behar zuen itxura, baina baze- goen zerbait berezia egiten zuena ezagutu nituen pertsona haiengan: txikitasunean handia izan nahia.

Herri telebistatik egon ez, eta egongo den itxurarik ere ez dagoen leku batetik etorri izan naiz egunero Arrasatera eta horrek beste ikuspuntu bat eman dit herri honen nortasuna aztertzeko. Azken hamar urte hauetan programa asko egin dira, dekoratuak ere hainbat aldiz aldatu dira. Eta pertsonak? Zenbat laguntzaile pasa ote da etxe honetatik? Hamar urte hauetan Zuzendaritza Batzordean egon diren etatik hasi eta platoon erratza pasatzen aritu denari ere zor zaio orain arteko guztia.

Aurtengo programazio berria egiteko orduan berriro ere laguntzaileen artean behar genituen pertsona askoren atea jo behar izan dugu eta berriro ere ez digu inork kale egin. Askorentzatz esperientzia bitxia izango da telebistan aritzea, baina badira momentuak jolasa lana bihurtzen dena eta horretarako etxe honen inguruan dabilen jendeak izugarritzko maila erakutsi du.

Aldaketa ugari izan dira ATB sortu zenetik. Baina non dago muga? Beste hamar urteren bueltan non egongo gara? Agian sorpresaren bat egon daiteke... baliteke hori ere.

*ATBko zuzendaria

 **MARKO-JARTZEAK**
ALDEDI
Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

HIES
EKIMENA
Astelehen, astearte
eta ostiralean
5etatik 8etara.
Tel.: 943 79 26 99

Arrasate

LANAK

OTALORAN

Pilotalekua egiteko lanak.

KONTZEZIÑON

Saneamendu lanak Zerka-ostetatik Garibaira bitartean.

ZALDISPE


Oinezkoen pasabideko lanak.

OBENERREKA

Gernika kaleko oinezkoen pasabidea berritzeko lanak.

URIBARRI


Amat Ederlan enpresaren ondoan, urbanizazio lanak.



Biztanleak: 24.257
Eremua: 33 Km²
Garaiera: 211 metro


Eguraldiaren aurreikuspena

Donostiako Metereologia Zentrua




OSTIRALA 8

Laino gutxi izango dira eta tenperatura ez da aldatuko. Haizeak ekialdetik joko du.



LARUNBATA 9

Behelainoa izango dugu lehen orduetan, baina egunak aurrera egin ahala, oskarbi geldituko da zerua. Haizeak ekialdetik, ahul.



IGANDEA 10

Tenperaturak gora egingo du behelainoak altxatu eta eguzkiak berotzen duenean. Haizeak ipar-ekialdetik joko du, ahul.

Ilargia



Ilberri

Urriaren 9an, larunbatean, ilberri izango dugu. Beraz gau iluna!

Mezak

Parrokia

Larunbatean
19:00 (elebiduna)

Igandean:
09:00 (erdaraz)
11:00 meza nagusia (euskaraz).
12:30 (elebiduna)

San Frantzisko

Larunbatean
19:00 (elebiduna)

Igandean:
09:00 (euskaraz)
10:00 (erdaraz)
11:00 meza nagusia (euskaraz).
12:30 (erdaraz)
19:00 (elebiduna)

Uribarri

Larunbatean
19:00 (elebiduna)

Igandean:
11:30 (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

San Andres

Ostiralean
18:30 (Otoitz ordua)

Larunbatean
18:30 (Bezpera abestiak)
19:00 (elebiduna)

Igandean
10:00 (erdaraz)
11:00 (euskaraz)
12:30 (erdaraz)


Santa Teresa

Larunbatean
19:00 (elebiduna)

Igandean
10:30 (erdaraz)
11:30 eta San Isidron (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

Urkuluko uraren maila

%66,5



Urteurrena

Orain dela urtebete *Arrasate Pressen*:

- Takoloko biribila inauguratu zuten urriaren 2an. 155 milioi kostatu zen.
- Udaletxean arazoak izan ziren, hainbat lanpostu zirela eta.
- Epaileak amaitutzat eman zuen Jose Mari Loiti alkatearen eta portugaldarren arteko auzia.

8 ostirala

■ **ZINEA**

Wild, Wild, West, Alai zineman, 19:00etan eta 22:00etan.

■ **HIRU HANDIXAK**

19:00etan egingo zaie ongietorria AEDk eta Besaideren Gazte taldeak antolatuta duten Hiru Haundixak mendi irteeran parte hartu behar duten mendigoizaleei. AEDren Garaioko aterpetxean izango da hori.

■ **MARGO ERAKUSKETA**

Ramon Aranzabalek lehen aldiz erakutsiko ditu bere margo lanak Arrasaten. Harresi Aretoan izango da. Ireljiera, 19:30ean.

■ **BERTSO AFARIA**

Gipuzkoako bertso txapelketako Leintz eta Azpeitiko Oñatz taldeen arteko kanporatzea dela eta, Alkartu

elkartean afarria izango da, 20:30ean.

■ **KONTZERTUA GAZTETXEAN**

A Coruñako *Thee Virus* eta Bergarako *Factoria 77* taldeek kontzertua eskainiko dute Gaztetxean, gaueko 22:00etan.

9 larunbata

■ **ZINEA**

Wild, Wild, West, Alai zineman, 17:00etan, 19:30ean eta 22:00etan.

■ **PALA TXAPELETA**

Deba Garaiko pilota txapelketa hasiko da Musakolako kiroldegian. Liga erara jokatuko da eta bigarren aldia, berriz, kanporaketa moduan.

■ **ANTZERKIA BERGARAN**

Yllanaren *666* antzezlanaren eskainiko dute Novedades aretoan, 22:30ean.

■ **KONTZERTUA GAZTETXEAN**

Belgikatik etorritako *Aborted* eta Ermuko *Apocalyptic* taldeen kontzertua izango da Gaztetxean, gaueko 22:00etan.

■ **JAM ARETOAN**

Bergarako Jam aretoan *Inflames*, *Dark Tranquility*, *Children of Boredom* eta *Arch Enemy* taldeak arituko dira 20:30etik aurrera. Sarrera 2.000 pta kostako da.

10 igandea

■ **ZINEA**

Wild, Wild, West, Alai zineman, 17:00etan, 19:30ean eta 22:00etan.

■ **JAM ARETOAN**

Fugazi, *Half Fott Outside* eta *Lisabö* taldeak arituko dira Bergarako Jam aretoan 20:30etatik. Sarrera 1.500 pta kostako da.

11 astelehena

■ **ZINEA**

Alguien como tu, Alai zineman, 19:00etan eta 21:30ean.

12 asteartea

■ **ZINEA**

Alguien como tu, Alai zineman, 17:00etan, 19:30ean eta 22:00etan.

■ **ELUSUKO FERIA**

Bergarako Elusu auzoan urteroko feria egingo da egun osoan zehar.

Haurdun bazaude **LAURA** da zure jantzidenda.

Udazkeneko moda gaztea jazteko, neurria ez da arazoa izango.

Neurri guztiak ditugu, baita zabalena ere.

Laura



Erdiko Kale, 30 • ARRASATE
Tel.: 943 79 05 80

13

asteazkena

■ ZINEA

Alguien como tu, Alai zineman, 19:30ean eta 22:00etan.

14

osteguna

■ HITZALDIA

“Emakumeek benetan badaukate eurentzako denborarik?” hitzaldia eskainiko du Soledad Murillo soziologoak. Saioa Arrasateko Emakumeen Asanbladak eratu du. Monterronen izango da, 19:00etan.

Udalatx Eguna

Urriaren 12an izango da. 09:00etan izango da irteera. Eguerdiko mezan Juan Jose Salaberri, Angel Balzategi, Teodoro Arana, Jesus Jauregi, Nikolas Agirre, Jose Mari Saiz, Antonio Zubizarreta, Jose Mari Mendizabal (apaiza), Heriberto Mendizabal eta Unai Zubikarai izango dituzte gogoa. Ondoren, Aita Lekuonaren abestia kantatuko da:

*“Udala Mendi, Udala Mendi,
euzkal aitzik zutunena
Araba alboan, erdi Bizkai ta
Erdi Gipuzkoa aizena.
Zeruko Jaunak eukiko al au
beti gaur aizen zuzena,
eu aizen arte zutumik bedi
euzkaldunaren izena”.*



■ NAFARROA OINEZ

Urriaren 10ean egingo da Nafarroa Oinez Iruñean. Debagunek autobusak antolatu ditu. Txartelak AEDn daude salgai. Bestalde, Nafarroa Oinezko antolakuntzak laguntza eskatu du. Lagundu nahi dutenek bezperatik autobusean joateko aukera izango dute, hango ikastolan lo eginez. Argibideak 943 77 12 28 edo 943 71 21 17.

■ ERAKUSKETA HARRESIN

Ramon Aranzabalek gaur bertan ireki du Harresi aretoan bere margolanen erakusketa. Lanok urriaren 24a arte egongo dira ikusgai, astegunetan (18:00 - 20:00) eta asteburuetan (12:00 - 14:00 eta 18:00 - 20:00).

■ MARGO ERAKUSKETA

Jose Zubiaurre bilbotarrek bere margolanak jarri ditu Toki Eder kafetegian. Zubiaurrek Arrasateko margo lehiaketako bigarren saria eskuratu zuen orain dela hiru urte.

■ DANTZA IKASTAROA

Gazte bulegoak “Jaz

dantza eta gaur egungoa” ikastaroa antolatu du. Ana Mandiolak zuzenduko du eta urriaren 16an hasiko da. Interesatuak 943 77 00 65era deitu.

■ KARIBEKO DANTZAK

Karibeko dantzak ikastaroa ere antolatu du Gazteri sailak, sakontze mailan. Urriaren 13an hasiko da. Plazak mugatuak dira. Argibideak: 943 77 00 65.

■ ARGAZKIGINTZA IKASTAROA

Hastapen mailako argazkigintza ikastaroa antolatu du Gazteri sailak. Jon Ruiz de Zaratek emango ditu eskolak, urriaren 16an hasita. Interesatuak 943 77 00 65era deitu.

■ JOKIN ZAITEGI

AEDk antolatzen duen Jokin Zaitegi itzulpen laburren sariketa abian da. Lanak edozein hizkuntzatatik itzulita egon daitezke eta urriaren 29a baino lehen aurkeztu behar dira, AEDn bertan. Lehen saria 200.000 pta.koa da. Argibideak: 943 77 12 28 zenbakian.



DEBA

GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Maalako Errabala, 31, behea • ARRASATE
Tel.: 943 77 13 02 / 943 77 14 27 • Faxa: 943 79 12 40

INMUEBLEEN BALIOZTATZEAK

- Etxebizitzak
- Garajeak



- Lekuak
- Lurrak

- Salerosketak
- Ondare banaketak
- Merkataritza elkarteen desegiteak
- Desjabetzeak
- Etab.

* Higiezinaren jabetzako agentea epai-balioztatzeak egiteko ahalmena duen profesionala da.

BERGARA


① Burtza ikasgai

Begarako UNEDek Burtzari buruzko ikastaroa eskainiko du aurtengo ikasturterako. Oinarrizko ikastaroa izango da, 150 orduko iraupenekoa. Complutense, Harvard eta UNED unibertsitateetako irakasleak arituko dira irakasten. Baita BBV, Santander, Central Hispano eta JP Morgan banke-txeetako profesionalak ere. Izena emateko epea irekita izango da urriaren 15a arte. Matrikulak 36.414 pezeta balio du. Eskolarako materialean, berriz, 4.250 pezeta gastatu beharko dira.

ANTZUOLA

② Guraso Eskola

Antzuolako gurasoek seme-alaben heziketan dituzten arazo edo zalantzak taldean eztabaidatzeko aukera izango dute,




psikologo baten laguntzarekin. Guraso Eskola izena du ekimen honek. Datorren astean, urriaren 13an, 18:30ean Iñaki Olaskoaga psikologoak honi buruzko informazioa emango du udaletxean. Pausoka, eskolako gurasoen elkarteak antolatutako egitasmo honetan, gutxienez zortzi gurasok eta gehienez hogeik parte hartuko dute. Matrikulazioa 5.000 pezetakoa da.

OÑATI

③ Kezkatuta


Astelehenean izandako kamioi istripu ikusgarriaren eta arriskutsuaren ostean, Zahor lantegiaren bidean dagoen Bidebarrieta kalearen segurtasuna kili-kolo geratu da. Honela bada, aste honetan bertan Foru Aldundiko errepide saileko teknikariak Oñatin izan dira, konponbiderik zuzenena zein den aztertzen.



weru
Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95
ARRASATE



PVC-zko ate eta
leihoez gain:
moksetak,
zoru arinak,
kortxoa,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, testila...


Dankak hitzarmen bat sinatu du DoubleClick multinazionalarekin

Mondragoeko Danka Multimedia enpresak hitzarmen bat sinatu du DoubleClick enpresa amerikarrarekin, Internet bidezko publizitate zerbitzuak osatzeko.

Hitzarmen honen bidez Dankak erabili ahal izango ditu DoubleClick enpresak publizitatea kudeatzeko dituen soluzioak, Dart teknologia tarteko. Teknologia honi esker, kontrolatu egin daiteke sarean jartzen diren publizitate leihoen maiztasuna; sailkatu publizitatea hainbat irizpideren arabera (erabiltzailearen hizkuntza, sistema eragilea, etab.), eta txosten bat jaso aldiro, publizitatearen etekina neurtzeko.

DoubleClick enpresak Interneten egiten diren 8.000 milioi publizitate inprimatze baino gehiago kudeatzen ditu, 370 motor bilatzailearen bitartez. 80 herrialdetan ditu ordezkariak. Bera da Interneteko publizitate-zerbitzuko enpresarik ahaltsuena.

Dankari dagokionez, orain



artean webguneak egiten zizkien bere bezeroei. Orain, bere lanari balore erantsia eman nahian, publizitate elkarreragilea eskaini nahi die. Horregatik egin du hitzarmena DoubleClick enpresarekin. Publizitatea egiteko modu honek alde oso onak ditu, batez ere

bakoitzari bidaltzen zaiolako ustez beharrezkoen duen publizitatea.

Hemendik aurrera, bada, Dankarekin lan egiten duten enpresek hileroko txosten bat jasoko dute, eurek egindako publizitateak zer eragin izan duen esango diena.

Hor ez dira bukatzen, baina, Dankaren lanak. Oraintsu brikolajeari buruzko CD-Rom bat bukatu du. Christian Pielhoff zarauztarrak hartu du parte lan honetan, sasoi batean "Bricomania" telebista saioko aurkezlea. Gabonetarako salgai jarriko dute.

Hauxe da Dankak egiten duen laugarren CD-Roma. Lehena haurgintzari buruzkoa izan zen; bigarrena etxearen ingurukoa; eta hirugarrenak Ingurugiro Tailerra du izena. Batez ere Latinameriketako merkatuan ari dira saluzten.

Danka 1996an sortu zen, Saiolanetik. Gaur egun Cerrajerako eraikin nagusian dago. Hemen 25 lagun ari dira lanean. Iaz Bilbon ireki zuen beste bulego bat. Han 4 lagun ari dira. Bi sail ditu: Interneterako zerbitzuak sortzen dituena eta Sutabe, CD-Romak eta, sortzeko. Hiru hilabetez behin *Media Magazine* aldizkaria kaleratzen du, bere jardunaren berri ematen duena.



Bidekurutzeta 3, 1.
Tel. eta faxa: 943 76 40 33

LANGAlrekin
lankidetzan

INEMek homologatutako
ikastegia

Diruz lagunduriko
ikastaroak

PRESTAKUNTZA ARLOAK

- Informatika
- Hizkuntzak
- Ikasketarako laguntzak
- Giza baliabideak
- Gestioa eta administrazioa
- Ingurugiroa
- Kalitate sistemak
- Automatismok eta teknologia

ENPRESENTZAKO PRESTAKUNTZA

- Prestakuntza beharren diagnostikoa
- Prestakuntza plan pertsonalatuak
- Erakunde publikoetako diru laguntzen tramitazioa

SERBI *Law*

astea bi hitzetan

■ **Letonari ebakuntza**

Pasa den ostegun goizean ebakuntza egin zioten Murtziako ospitalean Enrike Letona preso mondragoetarrari. Ezkerreko orkatila zuen hondatuta eta, dirudienez, ebakuntza ondo atera zen. Biharamonean bertan itzuli zuten Murtziako espetxera. Orain gaiberritze lanetan arituko da.

Hamahiru urte zeraman arazoezin ezkerreko orkatilan; espetxeratu zutenetik hain zuzen. Orain bost urte esan zioten operatu beharra zuela. Azken bederatzi hila-beteak makuluak erabiliz igaro ditu, ezkerreko hanka lurrean ipini barik.

Joan den maiatzean Arrasateko Udalak familia-ren mozio bat onartu zuen, Enrike Martutenera ekarri eta behar zuen tratamendua eman ziezaioten eskatuz.

■ **Ez dago lehorterik**

Uda lehorra izan dela eta, Urkuluko ur maila zenbatekoa den jakin nahi izan dugu. Dena den, eta Ur Partzuer-goan esan digutenez, ez dago zertan arduratu. Ez dugu lehorterik arriskurik.

Zenbakietan esatearren, Urkuluko ur maila bere ahalmenaren %66,5ean dago. Beraz lasai egon gaitzke.

Teknikoek azaldu digutenez, 1983 eta 1995eko

urteak urte lehorrak izan ziren. Oraingoz, orduan baino ur dexente gehiago dugu.

■ **Soldatak ezarrita**

Pasa den osteguneko Oso-ko Bilkuran, besteak beste, udal karguen erabateko dedikazioari dagokion diru-ordaina onartu zen.

Honela, Xabier Zubizarreta alkateak 5.420.996 pezeta kobratuko ditu urtean. Alkateorde bakoitzak, berriz, 4.776.502 pezeta. Hiru alkateorde daude Arrasateko Udalean: Ino Galparsoro da lehenengoa, Itsaso Garai bigarrena eta Jose Maria Urizar "Ametzu" hirugarrena.



■ **Ertzaintzaren jarrera salatzen**

Gudari Eguneko kale agerraldian Ertzaintzak izan zuen jarrera salatzen, kale bilkura egin zen ostiralean herriko plazan. Protesta ekintza honen bidez, Ertzaintzaren jokoa gaitzetsi eta zaurituei, eta bereziki Agustin Ibarluzea "Txispasi", elkartasuna erakutsi zieten bildutakoek.



Arrasate Telebista aitzindari izan da herri komunikabideen alorrean. Hamar urte hauetan gaur egun izen handia duten kazetari eta teknikariak pasa dira bertatik: Anne Igartiburu, Jon Andueza, Unai Iparragirre, Mikel Irizar edo Maider Egues, esate baterako. Ikusten denez, harrobi garrantzitsua da ATB".

Gara
1999.10.4

Helbide berria!



AZKARATE MORRAS

PODOLOGIA KLINIKA

Oin arazoak
Haur podologia
Kirol podologia
Biomekanika arazoak
Gari eta onddo tratamenduak
Plantila zuzentzaileak eta silikonak ortesiak
Kiro-podiak (gogortasunak, azazkalak, maskurrak)

ORDUA ALDEZ AURRETIK
Munar, 10 ARRASATE Tel.: 943 79 53 63

Arrontalde

Aurki...

80

etxebizitza eraikitzen hasiko gara

Legargain kalean.

Aldai, 7 behea - ARRASATE • Tel.: 943 79 83 08

Euskaraz bizitzeko lanean

Joan den asteartean AED eta Txatxilipurdi taldeek 1999. urteari dagokion hitzarmena sinatu zuten Arrasateko Udalarekin. Horren arabera, euskararen normalizazioaren alde lan egiteko elkarlana eta diru laguntza ziurtatu zaie bi talde hauei. Hain zuzen ere, AEDk zortzi milioi pezeta pasatxo jasoko ditu eta Txatxilipurdik, ia 24 milioi.

AEK elkartearekin ere hitzarmena sinatuko dela adierazi zen, baina hitzarmen hau datorren urtean egingo da. Izan ere, adierazitakoaren arabera, orain dagoen hitzarmena ez da egokiena. Beraz, aldatu. Eta eguneratu egin beharra dago.

Sinatze ekitaldian bi taldeen ordezkariak, Jasone Giraldo eta Joseba Ezpeleta izan ziren, Xabier Zubizarreta alkatea, Joxe Felix Diaz de Tuesta Euskara Batzordeko



Juan Luis Arexolaleiba.

teknikaria eta Juan Luis Arexolaleiba Euskara batzordeburua.

EUSKARAREN NORMALIZAZIOA

Azken honek prentsaurrea eman zuen Euskara Batzordeak algintaldi honetarako dituen asmoen berri emateko. Esan zuenez, udalak euskararen normalizazioa bultzatu nahi du. Horretarako bi pun-

tu jorratuko dira. Batetik, udalak berak barrura begira egin beharreko lana eta bestetik, Arrasatera begira egin beharrekoa.

Lehenengo puntuari dagokionez, "udala euskararen normalizaziorako lana egiteko prest badago, lehenik eta behin eredu izan behar da", esan zuen Juan Luis Arexolaleibak. Ondorioz, udaleko langileak euskalduntzeko lanari ekingo zaio. Alderdi politikoak, bestalde, eragile garrantzitsuak dira hizkuntzaren normalizaziorako. Beraz, ahalegin berezia egingo da hauek ere euskalduntzeko.

Bigarren puntuari dagokionez, asteartean sinatutakoaren moduko hitzarmenak lantzen jarraituko du udalak. Euskararen alde lan egiten duten taldeen arteko lankidetzeta eta harremana sendotzeko asmoa ere badago.

Eibar-Gasteizko bigarren zatia abian

Eibar-Gasteiz autobidearen bigarren zatia egiteko lanak adjudikatu dira. Aurkeztu diren hamalau eskaintzetatik, Foru Aldundiak Moyua, Murias, Altuna-Uria eta Galdiano izeneko enpresek osatutako taldea aukeratu du.

Bigarren zati hau, Soralezetik Maltzagaraino doa. Proiektuaren arabera, 11.000 milioi pezeta pasatxo behar dira lanok egiteko. 42 hila-

bete baino lehen bukatu behar dira.

Hala ere, aukeratutako taldeak eskaintza merkeagoa eta azkarragoa egin du. Hain zuzen ere, 9.000 milioi pezeta pasatxo eta 36 hilabete erabiliko omen ditu. Bergararik Soralezaraino doan zatia egiten ari den talde bera da bigarren zati hau egingo duena.

Lan hauek datorren hila-

betean hasiko dira eta 2002. urterako bukatuta egotea espero da.

Bost tunel eta 8 zubi eraikiko dira, 2,5 kilometro luze den zati honetan. Eibar-Gasteiz autobidearen zatirik korapilatsuenetakoa da hau, dudarik gabe.

Bigarren zati honekin Eibar-Gasteiz autobideak bat egingo du Maltzagan Bilbo-Behobia autobidearekin.

Jaiotzak

- Ane Miren Raso Delgado. Irailaren 19an.
- Maialen Beltran de Gebara. Irailaren 23an.
- Janire Davila Ruiz de Austri. Irailaren 24an.
- Amaia Lasa Calleja. Irailaren 28an.
- Andrea Hernandez Alonso. Irailaren 30ean.

Ezkontzak

- German Muruamendiarrak Iñarra eta Maria Pilar Urkia Zulaika. Elizaz. Irailaren 18an.
- Juan Francisco Kortabarría Kortazar eta Viktoriya Skotnytska. Zibilez. Irailaren 25ean.
- Esteban Sanchez Romero eta Rosa Maria Sarraoa San Migel. Zibilez. Irailaren 27an.
- Pedro Garai Markaide eta Maria Soledad Santa Cristina Lopez. Zibilez. Irailaren 28an.
- Dionisio Morales Gonzalez eta Begoña Juarez Lopez. Zibilez. Urriaren 2an.

Hildakoak

- Eusebia Arana Ezpeleta. 63 urte. Irailaren 21ean.
- Demetrio Garmendia Otegi. 91 urte. Irailaren 26an.
- Purificacion Estela Rodrigo. 94 urte. Urriaren 4an.
- Maria Ibañez de Garayo Guinea. 90 urte. Urriaren 4an.
- Maria Luisa Egjazu Pagaldai. 60 urte. Urriaren 4an.



Logopedia eta psikologia tratamendu kliniko eta hezitzaileak haur eta helduentzako.

Erdiko kale, 37 - behea
Tel.: 943 79 79 46 • ARRASATE



Zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak • PVCKo leihoak • Aluminiozko leihoak • Eskailerak • Armairu enpotratuak...

GREMIOEN KOORDINAZIOA

Erakusketak eta biltegia:
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20


Aldaketak Antoñako bide berrian

Gobernu Batzordeak aldaketa bat egitea erabaki du Antoñatik Santa Teresara egin behar den bidean. Aldaketaren arabera, bide berriak Antoña Etxeberri baserriaren gainetik doan bidearekin egingo du bat. Horrela, ez da sartuko Mojategi baserriraino zabalduko den kirol esparrura.

Hasierako proiektuaren arabera, bidea kirol esparruraino sartzan zen, hainbat arazo sortuz. Teknikariak konturatu ziren, ordea, zuzendu beharra zegoela eta horixe egin dute, hain zuzen.

Aldaketa honen ondorioz, Antoñako bidea luzatu egingo da, eta noski, baita aurrekontua ere. 101 milioi pezeta pasatxo inbertituko da bide hau egiten.

Antoña eta Santa Teresa lotuko dituen bideak ordezkatu egingo du gaur egun San Isidro elizatik sartzan dena. Beraz, Antoña Etxebarri, Arbe, Saburdi Zahar eta Saburdi Berri baserrietako lagunek bide hau erabiliko dute kalera joateko. Ur biltegiara entseguak egitera joan nahi duten rock taldeetako kideek ere



Kirol esparru berria inguratu egingo du saihezbideak.

horixe erabili beharko dute.

UDALAK ETXE BAT EROSI DU

Honetaz gain, jendaurrean da dagoeneko San Prudentziotik Epelerainoko bidea zabaltzeko egin behar diren lanen ondorioak jasango dituzten lurjabeen zerrenda. Norbaitek alegaziorik jarri nahi izanez gero, hilabeteko epea du horretarako; Hirigintzako bulegoetara jotzea besterik ez dago.

Bukatzeko, asteleheneko batzarrean jakinarazi zenez,

udalak beste etxebizitza bat erosi du Zeharkale Estalian, udaletxearen atzealdean dagoen kaletxoan. Gerora begira, udaletxea handitu behar izanez gero, horixe bera erabiliko litzateke bulegoak ezartzeko eta.

Udalak eginga du horrelakorik orain baino lehen. Oraingo Hirigintza eta Zerbitzuetako bulegoak lehen etxebizitzak ziren.

Erositako azken honekin, zortzi dira udalak bere esparrua handitzeko erosi dituen etxebizitzak.

Auto zaharren zergak

Hemendik aurrera, ordaindu egin beharko dira ibilgailu zaharren gaineko zergak. Atzeratutako ordainagiriak ere ordaindu beharko dira. Erabaki honekin, bertan behera geratzen da orain lau urteko erabakia, atzeratutako zorrak barkatzeko. Orduan erabaki zen gidariak albora utzitako auto zaharren gaineko zergarik ez kobratzea. Noski, ezaugarri berezi batzuk izan behar ziren zor hori ez ordaintzeko. Hau da: autoak 15 urte izan behar zituen gutxienez eta beronen egoerari buruzko dokumentua aurkeztu behar zen. Ez zen udalaren zor abisurik izan behar eta autoari baja eman behar zitzaion.

Arrasaten gaur egun ia 9.700 auto daude erroldan. Eta legeak dioenaren arabera, autoari baja eman arte, ordaindu egin behar da ibilgailuen gaineko zerga. Beraz, badakizue, autoa gehiago ez baduzue erabili behar, lehenik eta behin baja eman trafiko bulegoan. Udalak ez dizue hurrengo urtean auto horren ibilgailuen gaineko zerga kobratuko.



Inmobiliaria

*Etxebizitzak
Arrasate eta inguruan,
Durangaldean eta Gasteizen*

Berrizbeitia, 4
BERRIZ
Tel.: 607 79 30 00
94 622 52 05

Bolibar doktorea, 3
ARRASATE
Tel.: 607 79 10 00
943 77 15 66



ESKER ONA

1999ko urriaren 4an hil zen

Maria Luisa Egidazu Pagaldai

Senarrak, seme-alabak eta familia osoak bihotzez eskertzen dute, gaixotasunean jasotako laguntza eta hileta elizkizunetara agertu izana.

Udalak gaitzetsi egin zuen Ertzaintzaren portaera

Agintaldi honetako lehen osoko bilkuran mozio bat onartu zuen Arrasateko Udalak, Ertzaintzak aurreko astelehenan izandako jarrera salatzen zuena.

Mozioak esaten du arrasatear guztiak dutela beren ideiak kalean defendatzeko eskubidea, poliziak esku hartu gabe. Herritarrek, eta bereziki zinegotziek, kale agerraldietan bitartekari lanak egin ditzakete —segitzen du, eskubide demokratikoak bermatuz.

Adierazpenak elkartasuna adierazten die Ino Galparsorori eta liskarretan zauritutako beste lagunei.

Bukatzeko, mozioak gaitzetsi egiten du Ertzaintzak erakutsitako jarrera. Mozioa PSOE-ren aurkako botoekin onartu zen. PPko zinegotzi biak, gainera, ez ziren han.



PSOEk aurka bozkatu zuen Ertzaintza gaitzesteko mozioan.

Bilerarekin jarraituz, landu ziren beste gaien artean, bost lirateke aipagarrienak. Batetik, Zerrajeran biribil bat egitea onartu zen. Horretarako, kendu egingo lirateke orain Arrasate Musikaleraino dau den aparkalekuak.

Bigarrenik, udaletxean liberatu bezala lan egiten duten udal karguen soldata onartu zen.

Honetaz gain, Segurtasun eta Osasun Batzordean parte hartzeko udalbatzarreko kide berriak izendatu ziren: Ino Galparsoro, Jose Maria Urizar eta Joseba Ugalde.

TALDE POLITIKOAK

Laugarren puntu azpimarragarria ondoko hau izan zen, Udal Araudi Organikoa alda-

tzea. Honen arabera, bi alderdi batera aurkez daitezke hauteskondeetara eta ostean, udaletxean bakoitzak bere alde-tiko lan egin.

AURREKONTU ALDAKETA

Bukatzeko, 1999ko aurrekontua aldatu zen. Honela, ia 110 milioi pezeta tokiz aldatuko dira.

Etixerako laguntza zerbitzuak 21 milioi gehiago jasoko ditu, udalak ere 20 milioi gehiago izango ditu ondasunak erosteko, pilotaleku berrirako 10 milioi pezeta gehiago erabiliko dira eta, azkenik, aholkularitza juridikorako eta kale garbiketarako beste 10 milioi pezeta erabiliko dira. EUDI-MA elkarteari gehitu egingo zaio ordaintzen zaion diru kopurua.

Atxilotutako hirurak, kalean

Ostiralean hiru pertsona Zabalera zubiko egituratik zintzilikatu ziren Eibar-Gasteiz autobidearen aurka protesta egiteko. Ondorioz, zirkulazioa moztu zen ordu laurden batez, harik eta Ertzaintza heldu zen arte. Hirurak Ertzaindegira eramane zituzten. Gaua hantxe pasatu zuten, adierazpenak euskaraz egin nahi zituztelako. Larunbatean askatu zituzten, kale istiluak sortezaz akusaturik.



Ehizatokien zozketa

Asteazken honetan hasi eta datozen asteotan, ehizatokien zozketa izango da Leintze Arrantza eta Ehiza elkartearen. Hurrengo zazpi egunetarako ehizatokiak zozkatuko dira tarte horretan.

Zozketan parte hartzeko derrigorrezkoa da Federazioak emandako ehizatokien txartela aurkeztea. Leintze elkar-tekoek, berriz, agiria ere aurkeztu beharko dute.

TOKION
ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN SALMENTA
Erdiko Kale, 7
Tel.: 943 79 91 64 • ARRASATE

IRATI TABERNA
Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE

URRATS
AHOULKARITZA
GARIBAI, 3
Tel.: 943 79 87 74
ARRASATE

Maritxu Kajoiren oihartzunak aspaldi zeharkatu zituen Arrasateko mugak. Baita Euskal Herrikoak ere. Aurtengoak ederki frogatu du hori. Nonahitik etorritako jendez gainezka egon ziren Arrasateko kaleak.

Zorioneko giralduak agertu ziren aurtengo mirarian, euskal presoen hurbiltzea eskatuz. Geroz eta gehiago dira, gainera, Maritxu egunean dotore-dotore jazten diren umeak ere. Argi dago: belaunaldi berriek jarraipena emango diote Maritxu jaiari. Hala bada, hala biz; eta ez bada, ora pro nobis.



Argazkia: Foto Imagen



Argazkia: Foto Imagen




Argazkia: Foto Imagen



Argazki hauek Jon Ruiz de Zaratek atera zituen Maritxu Kajoi egunean.

Giroa alaitu behar zen arrasatearren egunik dotorenean. Eta horretaz arduratu ziren fanfarrekoak.



Denak zain zeuden. Baina lehenengo traka piztu behar zen, eta 20:30ean Maritxu argitu egin zen.

Orduan agertu zen denek espero zutena: mirarial! Giraldilla agertu zen Maritxuren alboko arkuan.



Kilikiak ere atera ziren giroa alaitzera. Arrasateko erraldoiek ezin dute Maritxu eguneko jaia besterik gabe etxean pasa.



Eskari eta eskaintzaren

Etxebizitzaren eskaria izugarri handia da Arrasaten. Legargainen eta Zerrajeran egingo diren etxebizitzetarako, adibidez, inoiz entzun den

jende kopururik handienak eman du izena. Arrasateko herriak, ordea, arazo latza du auzi honetan: ez zaiola lurrik gelditzen urbanizatzeko.

gero. Dena dela, Xabier Zubizarreta Arrasateko alkate eta Hirigintza batzordeburuaren iritziz, "Zerrajeran egingo diren babes ofizialeko 92 etxebizitzak oso gutxi dira. Arrasaten askoz gehiago salduko lirateke, eta gure helburua zenbaki horietara jotzea da".



Zerrajeran 312 etxebizitza egingo dira; horietatik 92 babes ofizialekoak.

Etxebizitzaren merkatua nahiko eskas dago Arrasaten. Azken bost urteotan 542 etxebizitza egin dira; batez beste 108 etxebizitza urtero, beraz. Arrasate pasealekua, Kontzeziño kalea, Uarkape, Otalora, Laubide plaza eta Larrea eta Usaetxe plazetan egin dira horietatik gehien. Etorkizun hurbilera begira, berriz, beste 522 etxebizitza egiteko asmoa dago: 312 Zerrajeran egingo dira, eta datorren urteko lehen hiruhilabetean hasiko dituzte lanak. Bi, hiru eta lau gelatako etxebizitzak eta terrazadun duplexak eraiki asmo ditu Zarauzko "Construcciones Aménabar" enpresak, eta 312 horietatik 92 babes ofizialekoak izango dira. Babes ofizialeko

etxebizitzetarako eskaera, aldiz, ia laukoiztu egin da. Legargainen, berriz, 130 etxebizitza eraikiko ditu Donostiako "Construcciones Sukia" enpresak. Ingurune bertsuan beste 80 etxebizitza eraikiko dira, Arrontalde inbiliarriaren eskutik.


Babes ofizialeko etxeak norentzat izan behar diren Eusko Jaurlaritzako Etxebide erakundeak erabakitzen du, berriz baitagokio babes ofizialeko etxebizitzaren kudeaketa. Makina bat eskatzaile jarri da harremanetan zerbitzu horrekin Zerrajerako babes ofizialeko etxebizitzak direla eta, 902 42 44 44 telefonora hots eginez. Izan ere, bitartekari pribatu edo inbiliarriak etxe pribatu edo libreen salmentaz baino ez dira arduratzen.

Eusko Jaurlaritza bera da babes ofizialeko etxebizitzak egiteko bitartekoak ezartzen dituen ere. Proiektu posible batzuk bideratzen ditu udalekin, eta herri bakoitzean egon daitezkeen beharren arabera etxe multzo bat eskaintzen da

EROSLEAK


Babes ofizialeko etxebizitzetarako jende gazteak ematen du izena, batez ere. Izan ere, aurretik etxea duen inor ezin da legez babes ofizialeko etxebizitzaren bila joan. Arrasaten egingo diren etxe pribatu berrietarako, aldiz, batik bat 40-50 urte inguruko bikoteek eman dute izena. Periferiatik erdigunerantz hurbildu nahi dutenak dira, batez ere.

Bestalde, bigarren eskuko etxebizitzaren salmenta ere hor dugu. Orain hiruzpalau urteko bolada txarrari buelta eman zaio. Sasoi hartan ez zegoen eskaera handirik. Eskaera handituz joan da, ordea, eta orain jabe askok zuzenean saltzen ditu, inbiliarrien bitartekaritarik gabe. Etxebizitza berrien eskaintza handitu aha-



Zerrajeran egingo diren etxebizitza libreen planoak.

dema



IFAM inguruan beste 210 etxebizitza eraikiko dira.

la, ordea, zailago egiten da bigarren eskuko etxebizitzak saltzea.

ALOKAIRUZKO ETXEAK

Arrasaten etxebizitzak alokatzeko dagoen eskaera itzelak ito egiten du dagoen eskaintza urria. Hori izugarritzko arazo bihurtzen ari da, batez ere Mondragon Unibertsitate etortzen diren ikasleentzat. Hori gutxi balitz, Mondragon Unibertsitateak orain duen ikasle kopurua urte gutxi barru bikoiztu egingo dela aurreikusi du, eta horrek laztu egingo luke egoera.

Xabier Zubizarretak zera dio horren gainean: "Posibilitate erreala badugu Eusko Jaurlaritzarekin batera alokairuzko etxebizitzak egiteko, egingo ditugu. Mondragon Unibertsitateak bere campusak antolatzeke ere beharko ditu lur batzuk. Unibertsitateak jendetza handia erakarriko du, eta horientzat beste aukera bat ikasleentzat egotzak egitea da".

INMOBILIARIARIK

Asko dira inmobiliaria baten betekizunak, baina batez ere etxebizitzaren jabeen eta erosten arteko bitartekaritza lana egiten dutela esan daiteke. Horretaz gain, herrian eraikinarik egiteko lurra bilatzen saiatzen dira, eta ondoren eraikinarik egiteko promotoreak bilatzen dituzte.

Arrasaten lau inmobiliaria ditugu: Anboto, Deba Garaia, Ekos eta OPS. Herrian horrenbesteko aztoramena sortu duten Zerrajera eta Legargaineko etxebizitzaren eskusiba, adibidez, Anboto inmobiliariak du. Dena den, eta Anboto inmobiliariako arduradun Xabier Pagaldaireren hitzetan, "gure jarduerarik garrantzitsuenak etxe-

"Arrasaten babes ofizialeko askoz etxebizitza gehiago salduko lirateke"

bizitzaren kooperatibak egitea da. Etxebizitza hauek bere kostu hutsean erosten ditu kooperatibistak, ez baitago erditik promotorearen etekinik. Merkatuarekin konparatuz gero, etxebizitza hauek %20-25 merkeagoak dira, eta kalitate aldetik berme osoa dute".

LUR GABEZIA

Arrasateko herriak, ordea, dagoeneko urbanizaturik duen lurra da ia eduki dezakeen guttia. Xabier Zubizarretak dienez, "urbanizatzeko kalifikatuta dugun luraren barruan dugu pentsatu beharra. Hiria- ren garapenerako eskuragarri egon daitekeen lurra kalifikatuta dago jadanik. Dena dela, oraindik badago orain duguna baino okupazio handiagoa egitea. Arrasateko herriak pentsatu behar duena zera da: daukan lurra ongi antolatzea eta gero hemen garatu nahi ditugun aktibitateek gainbalio handiagoa edukitzea, errentagarritasun handiagoa ateratzeko daukagun lurri".

EGITASMO OROKORRA

Herriko lurren banaketa 1985ean onartu ziren arau subsidiarioen arabera egiten da. Udalak, ordea, urbanizatzeko lanean zehaztasun handiagoarekin jarduteko egitasmo orokor bat egiteko erabakia hartu zuen duela urte batzuk. Izan ere, herri bat bizia da, proiektu eta behar berriak sortzen dira, biztanleriak gorabeherak izaten ditu eta exigentzia mailak ere aldatu egiten dira. Horregatik, komeni da plangintza berria egitea. Egitasmo hori urtebeteren bueltan bukatuko dute, eta

horrek definituko du hurrengo urteotan lurzati bakoitza zertarako erabili.

Plangintza hori egitea ez da uste bezain erraza, ordea. Hirigintzan jabegoa duten guttien interesekin jokatu beharra dago. Jabeek legez eskubideak eta betebeharrak dituzte, eta irabaziak ahalik eta modurik justuenean banatu behar dira, eta etorkizuneko ikuspegiarekin.

PREZIOAK

Arrasaten egiten den etxebizitzaren eskaintzak eragin handia du inguruko herrietako etxebizitzaren prezioan. Horixe adierazi digu Xabier Pagaldai: "Arrasaten eskaintzarik dagoenean inguruko herrietan jaitsi egiten dira etxebizitzaren prezioak, eta ez dagoenean, igo. Dena dela, Aretxabaletan Arrasateko prezio bertsuan saltzen dira etxeak, 30-32 bat milioitan. Aramaio Arrasate baino merkeagoa da, 18-19 inguru milioitan saltzen baitira. Eskoriatzan 20 milioiren bueltan ari dira, eta Oñatin 25 bat milioitan. Dena dela, merkaturik mugikorra da, eta ezin da orokortu".

AURREIKUSPENAK

Egonkortzeko joera du Arrasateko biztanleriak. Dena den, gero eta txikiagoa da haur eta gazteen kopurua, eta handiagoa 65 urtetik gorakoena. Migrazio mugimenduak alboratu eta jaiotza eta heriotza tasen bilakaera haintzat hartuz, 864 lagun gehiago izanongo litzuke 2004. urteko Arrasatek. ■

Maidier Osa

ANUSKA LASA (GOENKALEKO ANE LASA)

“Goenkale, eskola pa

29 urte ditu eta arrasatearra da, baina azken urteotan Gernikan bizi da. Irakasle ikaketak eta antzerkia ikasi zituen. ATBn Bapirulauke saioa aurkezten ezagutu genuen. Orain, ordea, Goenkaleko Ane Lasa bezala da ezaguna Euskal Herrian. Hasieratik ari da ETBko tele-sailean eta joan den aste-buruan 1.000. atala ospatu zuen bere lankide guztiekin Donostian egindako jaietan.

— 1.000 atal. Ez dira atal asko?

— Bai, izugarri. Jadanik sei urte dira horretan ari naitzela. Baina oso gustura nago, ez nuke aldatuko.

— Nolatan erabaki zenuen Goenkale sartzeko?

— Erabaki ere ez nuen egin. Ikastola batean irakasle edo Goenkaleko aukeraketa izan nituen hautatzeko eta aukeraketara aurkeztea erabaki

nuen. Lehen ere antzerkian aritu nintzen.

— Anuska Lasak eta Ane Lasak ba dute antzekotasunik?

— Ez, baina errealitateak fikzioa gainditzeko duelako esaldia egia dela iruditzen zait, batzuetan. Haria irakurtzen dudanean batzuetan nire ere antzeko zerbait gertatu zaidala iruditzen zait. Bai, nire ustez batzuetan parekatu egiten dira.

— Ane, bere lehengusuekin hasi zen ateratzen. Zer pentsatu zenuen haria (gidoia) irakurtzean?

— Zergatik ez?, horixe pentsatu nuen. Nire aitona eta nire amona lehengusu-lehengusin propioak ziren eta horregatik ez da arazorik izan.

— Horrez gain, zure pertsonaia izan da aldaketa gutxien izan duena, ezta?

— Ez, izan du aldaketarik. Hasieran andereño historikoa zen, ergel samarra eta orain guztiz kontrakoa da. Nahiago dut oraingoa.

— Zurekin identifikatzeko delako?

— Ez; nahiz eta gaur aurreratu batzuetan parekatzen garen, ez naiz berarekin identifikatzen.

— Haurdunaldia ere lanean igaro duzu eta istorioaren hariarekin lotu duzue. Zure erabakia izan zen edo horrela eskatu zizuten?

— Zortzi hilabete eta erdiz egon nintzen lanean. Hasieran haurdun gelditu nintzenean ez nuela jarraituko uste



“Errealitateak fikzioa gainditzeko duelako esaldia batzuetan egia dela iruditzen zait”

aregabea'

nuen eta onartu egin zidaten. 29 urte nituen eta gogoan nuen ume bat izateko.

— Zaila da eguneroko elkarrizketak buruz ikastea?

— Zaila ez da, baina lan handia du. Batzuetan itogarria da. Batekin ahaztu eta hurrengo egunean beste *totxo* bat ikasi behar duzu. Baina nire lana da eta egin beharra dut; gainera, gustura egiten dut. Ez da zaila ikastea, zailagoa da antzetzeta.

— Zer ikasi duzu Goenkalen?

— Gauza asko, baina ez dakit zer esan. Antzetzten ikasi dut. Eguneroko-eguneroko egiten dut eta asko ikasten da. Goenkale baino hoberik antzerkirako... 1.000 atal izugarria da. Hori bai dela eskola eta ez antzerki eskola.

— Zer duzu gustukoan

telebistan?

— Telebistan agertzen garen guztioi uste dut gustatzen zaigula ezaguna izatea. Nirea bezalako lan batek horixe eskaintzen dizu. Baina agian jendeak nire lana mirestea dut atseginen.

— ATBn hasi zinen telebistan lanean. Zer gogoratzen duzu?

— Oso ondo pasatzen nuen ATBn eta niretzat gainera, eskola bat izan zen. Oso esperientzia polita izan zen.

— Negozio bat ere jarri zenuen.

— Bai, pizterria bat jarri genuen Gernikan. Jadatik lau urte badira. Zerbait jarri nahi genuen eta negozio hori jartzea erabaki genuen. Esperientzia polita da, baina gogorra. Banderaz ere aritzen naiz. Barra baten atzean asko ikasten da. ■

Orain, metalurgian ere emakumeak



Beste lan irtenbide bat: emakumeak orain buzoarekin

Emakumeei zuzendutako soldadura ikastaroa antolatu da

Jantzi buzoa zuk ere

Soldadura teknikak ikasi eta enpresetan praktikatzeko atek zabalik dituzue.

Ikastaroaren iraupena:

Azaroaren 2tik martxoaren 31 arte. (400 ordu)

Orduetgia:

09:00 -13:00 (astelehen, astearte, asteazken, ostegun, ostirala)

Plaza mugatuak (15)

Izen ematea: urriaren 20a arte

Antolatzailea: Enplegu Zerbitzua

Laguntzailea: Emakume Saila



ARRASATEKO UDALA

Emakume Saila ■
Enplegu Zerbitzua ■



Udazkenari ongietorria emateko...

...astelehenetik asteazkenera %10eko beherapena edozein zerbitzutan (abenduaren 18ra arteko eskaintza).

Ez daukazu aurretik deitu beharrik. Zatoz!

Gorbea kalea • Tel.: 943 77 09 44 • ARETXABAETA



LEZETXIKIKO BIZILAGUNAK

Urtero moduan, gizonto neanderthalak eta lamia gazteak Lezetxikitik Garagartzara jaitsi ziren. Auzoko jaiak zirela eta, bizilagunak bisitatzen izan ziren. Orain, osterara ere, euren kobazuloan gorde dira datorren urtea arte. Ondo izan!



Argazkia: Argazki Bideo Zapping

MAITASUNAREN KOLOREAK

Santi eta Sonia ezkonberriak dira oraindik. Ekainaren 19an ezkondu ziren eta ostean, azkenaldian puri-purian dagoen Dominikar Errepublikara joan ziren ospatzera. Zorionak eta pozik bizi, bikote!

BONARDI
BILDUMA

Bakarrik
3.400 Pta.



Aukera zabala.
35 modelo baino
gehiago aukeratzeko.

Multiofertak
MULTIOPTICAS

60 URTE

-TIK AURRERA

Gaztetzen duten modeloekin kontu ezazu

8.700* Pta. -tik aurrera

Montura
+ Kristalak



LENTE

PROGRESIBOAK

Berehalako enfokea eta ikuspen hobezina
distantzia guztietan. Moldaketa
garantizatuzarekin

19.500 Pta.
-tik aurrera

BETAURREKOAK

UMEENTZAKO

Montura + Kristalak

8.900* Pta. -tik aurrera



MULTIOPTICAS
LARRAÑAGA

Ibargarai, 16 - BERGARA
J. Carlos Guerra, 1 - ARRASATE
J. M. Barandiaran Enp - ORDIZIA



JAIK ONDO GOZATUTA


Jai-egitarau potoloa zeukaten Untzila auzoko bizilagunek astebururako eta ikusten denez, ondo gozatu dute gainera! Bertso afariarekin ekin zien jaiei eta dantzaldia, bolo txapelketa eta batez ere giroa, sekulako giroa izan omen zen Untzilan jaietan. Datorren urtean probatu behar...



EHIZTARI TREBEAK

Irailaren 25ean ehiza txakurrekin egiten den ehiza txapelketa izan zen Arabako Errioxa aldean. Tartean, arrasatearrak ere izan ziren, batzuk parte hartzen eta beste batzuk arbitro lanak egiten. Txapelketa honetako irabazleak izan ziren: Asier Abasolo lehenengoa, Carlos Gamuza bigarrena eta Francisco Perez Sevillano hirugarrena. Zorionak!

- *Etxebizitzak*
- *Eraikuntza bereziak*
- *Zaharberritzeak*
- *Pabilioi industrialak*
- *Urbanizatze lanak*
- *Etab.*



BRUES, S.A.
Eraikuntzak

Froin 5 behea • ARRASATE

Floorball delakoa dator




Hasiak dira AKPko neska-mutikoak kirola egiten. Eta hauetako batzuk, 3. eta 4. mailako haurrak, kirol berri bat egiten hasiko dira. European zehar ezaguna da eta kirolari handien aurrendenboraldian asko egiten da. Euskal Herrian, ordea, ez da hain ezaguna, oraindik.

Floorball izena du eta Suedian du jatorria. Dituenez zaurgarriengatik erabiltzen da kirolarien aurrendenboraldietan eta eskola kirolerako. Laguntza, aurkatasuna eta talde lana eskatzen dituenek, oso egokia da.

Hockeyaren antzekoa dela esan daiteke, baina makilak erabiltzen direlako baino ez da hori. Saskibaloio jokaleku txiki bateko eremu batean gerritik beherako bi ate txiki egoten dira eta aurrealdean metro eta erdiko areak margotuta.

3-6 jokalarirekin jokatzen da eta ez dago postu zehatzik. Jokalariak areatik kanpo aritu behar dira, bestela penaltia litzateke. Kasu horretan 7 m. tik jaurti beharko da penaltia eta jokoa atetik hasiko da ondoren.



3 - 6 jokalarirekin jokatzen da floorballlean.

15 minutuko bi aldi ditu. Pilota, bestalde, epaileak ateratzen du.

ARAUAK

Pilota makilaren bi aldeekin jo daiteke. Gelditu, ordea, makilarekin, oinarekin edo bularrarekin egin daiteke. Pareta erabil daiteke pilota garraiatzeko. Aurkakoari, bestalde, kendu egin dakioketako

ta. Ezin da, berriz, pilota esku-ratzeko asmoz makila belau-netik gora altxatu edo pasea oinarekin egin; ez eta pilota eskuz edo buruz gelditu eta pilota lurretik jokatuta, hau da, lurlean etzanda edo jarrita. Debekatua dago, bestalde, edozein gorputz atal arean sartzea. Ez ahaztu ezin dela aurkaria jo edo bere makila altxatu edo blokatu.



JOKO MOLDAKETA

Eskola kirolean entrenatzaile edo irakasle bakoitzak bere egoerara egokitzen ditu arauak. AKPk Gazteluondoko zelaira egokitu du *floorballa*. Bi eremutan banatzen dute. Eserleku suediarren bidez mugatzen dituzte joko eremuak, exerlekuek horma osatzen dutela.

Penaltia joko eremuaren erditik jaurtikitzen da. Bost jokalaria kantxaratuko dira. Jokalariak nahi denean aldatu ahal izango dira.




URONDO

Elektrizitatea

- Elektragaiak
- Instalazioak
- Automatismoak
- Proiektuak
- Argiztapena
- Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

SASKIBALOIA Bixamonarekin ezin



Joan den larunbatean jokatu zuen Kenci-Arrasate saskibaloia taldeak denboraldiko lehen partida. Maritxu osteko bixamonak eta hiru jokalaririk falta izanak eragina izan zuen, bai, emaitzan. 9 lagun joan ziren Gernikara. Gernikarrak motel jokatzeko saiatu ziren eta Lander Errasti, bizi-bizi. Jokaldi motelak eta bizkorrak tartekatuko ziren. Lehen zatia 25-27 amaitu zen. Bigarren zatian defentsa zorrotza eta kontraeraso azkarrak egiten atera ziren arrasatearrak, baina bat-batean huts asko egiten hasi ziren. Azkenean, 69-47 amaitu zen, gernikarren alde.

Aurrealdean jokoa hobetu beharra dute arrasatearrek. Hori somatu zuten Alvaro

Coca eta Eneko Gorostidi jokalariek. Iban Garrido ere ez zen Gernikan izan.

Larunbatean Iturripen arituko dira. Etxean jokatzeko duten lehen partida izango da denboraldi honetan. Aurrez aurre, Kenci-Arrasate eta Loiola-Indautxu taldeak arituko dira, arratsaldeko 18:00etan.

ESKUBALOIA Hasiera eskasa



17 eta 26 galdu zuten igandean Arrasate-Almen eskubaloia taldeak, Hernaniren aurka. Ez zuen ondo hasi denboraldia.

Lehen 15 minutuetan hobeto aritu zen gure taldea eta markagailuan aurreratu egin zuen. Orduan Artiz erdilariari txartela atera zion epaileak eta kalera bidali zuen.

Kanpotarrek abagunea

aprobetxatu eta aurreratu egin ziren, nahiz eta Bernardorenak fin aritu defentsan. Azkenean, beraz, denboraldiko lehen partidaren kale egin zuten etxekoek. Aste honetan bi partida jokatu zituzte: igandean Bergaran arituko dira, 12:00etan, eta asteartean Iturripen, Beasainen aurka.

Gazte mailakoak lagun arteko partida jokatu zuten larunbatean. Derbia izan zen, gainera. Almenen aurka aritu zen Jesus Mari Herrorek zuzentzen duen taldea; 17 eta 15 gailendu zituzten atxabaldarrak.

FUTBOLA Etxean, bai



Lehen zatian huts eta huts, baina bigarrean fin aritu ziren igandean Atxabalpen Esti Loitiren neskek. Kanpoan lor-

tzen ez dutena, etxean esku-ratzen dute. Orain arte, irabazi egin dituzte etxean jokatu-tako partidak.

Lehen zatian hasi ziren gol egin nahian, baina zutoinak gelditu zuen baloia. Bigarren zatian hasi orduko sartu zuen Izazkun Aranbarrik lehen gola. Rakelek egin zuen bigarrena, Larraitzek emandako baloi bati esker. Hirugarrena penaltiz egin zuen Larraitzek eta laugarrena, debatarren oparia izan zen. Asteburu honetan Urolaren aurka arituko dira, Urretxun.

Atxabalpen jokatu zuten talde guztiek irabazi zuten igandean: ohorezko gazte mailan, Mondra 2, Pasajes 1; bigarren haur mailan Arrasate 5 Aretxabaleta 0; ohorezko infantiletan, Arrasate 3 Pasajes 2.

Errejonial mailako Mondrak irabazi egin zuen Loiolan. 1 eta 2. Larunbatean Eibar-ko Gazteak taldearen aurka jokatu du, 17:00etan.



Natalio Maiztegi dantza irakaslea

DANTZA IKASTAROA

- **Hasiera:** urriak 16.
- **Eguna:** Larunbatak.
- **Ordutegia:** Goizez: 09:30 - 11:00.
11:30 - 13:00.
Arratsaldez: 15:45 - 17:15.
- **Modalitateak:** Tangoa, balsa, merengea, salsa, etab.
- **Irakaslea:** Natalio Maiztegi.
- **Prezioa:** 4.500 pta. hilero.
Bazkideak 3.500 pta. hilero.



Bixente Ferrer, 1
ARRASATE
Tel.: 943 79 52 17

Arrasate Errugbi taldea denboran

Entrenamenduei ekin diete Arrasate Errugbi Taldekoek. Aurten, 30 lagun arituko dira

senior mailan. Hauetatik hiru gazte mallatik igo dira, beste bi berriak dira eta garai batean taldean ari-

tu ziren Arrieta eta Zabala talde-
ra itzuli dira. Entrenatzaile lanetan Patxi Gorosabel arituko da, Jose-

ba Maidaganen la-
ki. Denboraldiari
ren 24an hasiko



JM Servide
(24 urte)
atzelaria



Joseba Maidagan
(28 urte)
atzelaria eta entrenatzailea



Aimar Ormazabal
(23 urte)
hegalekoa



Angel
(25 urte)
hegal



Egoitz Unamuno
(21 urte)
zabaltzailea




Iban Agirreurreta
(27 urte)
zabaltzailea




Asier Agirreurreta
(25 urte)
mele erdia



Jon Aldamiz
(27 urte)
hiru



Iñigo Olasolo
(29 urte)
2. lerrokoa



Iban Okina
(24 urte)
2. lerrokoa



Etor Goikoetxea
(24 urte)
2. lerrokoa



Mikel
(20 urte)
2. lerrokoa

aldia prestatzen ari da

guntzarekin, nos-
gokionez, urria-
dute. Argazkie-


tan ez dauden beste hamaika lagu-
nek osatzen dute senior mailako
Arrasate Errugbi taldea. Hauek

dira falta direnak: Garikoitz Heriz,
Asier Belastegi, Enaitza Balanza-
tegi, Iban Agirreurreta, Harkaitz


Inarguen, Jon Latasa, Jon Aldamiz,
Iker Saizar, Zunbeltz Arana, Ander
Egues eta Haritz Gorroño.




artzia
(te)
alkoa



Gaizka Biteri
(23 urte)
hegalekoa




Markel Elortza
(18 urte)
2. erdilaria




Haritza Arrieta
(24 urte)
erdilaria



txebarria
(te)
grena



Aitor Etxenagusia
(18 urte)
3. lerrokoa



Joseba Zabala
(26 urte)
3. lerrokoa



Patxi Gorosabel
(40 urte)
2. lerrokoa eta entrenatzailea




ebeste
(te)
alkoa



Jon Balzategi
(20 urte)
horpokatzailea



Jon Sanabria
(18 urte)
pilierra



Iñigo Ansuategi
(32 urte)
pilierra

Udazkenerako kultura eskaintza

Arrasateko Udaleko Kultura batzordeak dagoeneko zehaztu du udazkenerako kultura eskaintza. Zortzi erakusketa, zazpi film luze, hiru antzerki saio, zarzuela bat eta hainbat ikastaro antolatu ditu urria bitartean.

Harresi aretoan Ramon Aranzabalek jarriko duen erakusketak emango dio hasiera kultura eskaintza honi. Margolari arrasatearrak urriaren 8tik 24ra bitartean erakutsiko ditu bere margo lanak, Arrasateko Harresi aretoan.

Ondoren Arrasateko Margo Taldearen eskutik izango da erakusketa, urriaren 29tik azaroaren 7ra. Azaroan eta abenduan, ordea, beste hiru margolari arrasatearren lanak ere jarriko dira jendaurrean: Valentin Aranarenak azaroaren 12tik 28ra; Eluska Zabalorenak azaroaren 3tik abenduaren 19ra; eta Luis Jabier Arrietarenak, abenduaren 21etik urtarrilaren 9ra.

MONTEIRONEN

Horretaz gain, *Gazteak eta 2000. urtea* argazki lehiaketako argazkiak ere jarriko dira jendaurrean. Ikusi nahi dituenak Monterrongo kultura etxera jo beharko du, urriaren 15etik 30era bitartean. Bestalde, Arrasateko Udal liburutegiak antolatuta, beste bi erakusketa egingo dira: Batek "Irakurtzearen plazerra" izenekoak. Bestetik, berriz, Antton Olariaga marrazkila-



Ramon Aranzabalen margolan bat.

riaren lanak jasoko dituena. Euskal margolari honek Arrasateko Santamas jaietako hormirudia ere egin du ia azken 20 urteotan.

FILM LUZEAK

Film luzeak urriaren 14tik aurrera emango dira eta urria eta azaroa bitartean ostegunero proiektatuko dituzte. Gaueko 21:30ean izango dira, Amaia antzokian. Dena den, oraindik ez da zehaztu zein film izango diren.

Baina, antzerkiak ere izango du lekurik Arrasaten udazkenean. Hiru antzerki saio izango dira. Horieta lehen urriaren 23an izango da, Ados Teatro taldearen "Desperrados" hain zuzen ere. Komedia horrek langabezia eta milurtekoaren bukaera ditu gaitzat. Azaroaren 6an, berriz, txikienek "Mari Sorgin" ikusteko aukera izango dute, Taupada taldearen eskutik. "Un poeta en Nueva

York" da azkenengo antzerki saioaren izenburua. Sevilako Imperdibles ekoizte-txearen antzezlan da, eta Federico García Lorca poeta andaluziarraren bizimodura eta bere poesiara hurbiltzeko asmoa du. Ikuskizunean multimedia, irudi, makina, dantza eta musika baliabideak erabiltzen dituzte.

"EL CASERIO" ZARZUELA

SUDCek, berriz, Jesus Guri-diren "El Caserío" zarzuelaren antzezpena antolatu du urriaren 17rako. Arrasateko Udalarekin elkarlanean eramango du aurrera SUDCek egitasmo hori. Sarrerak dagoeneko salgai daude Kajoi tabernan eta Zabaleta lurrindegian. Baita SUDCen egoitzan ere, arratsaldeko 18:30etik 20:00etara. Leihaitan, berriz, 2.500 pta kostako dira.

Komiki Ez Sexisten sari banaketa

Urriaren 13an banatuko zaizkie sariak Komiki Ez Sexisten lehiaketako irabazleei. Arrasateko Udaletxeko osoko bilkura aretoan izango da sari banaketa, arratsaldeko 18:30ean.

Hibai Zabaleta eta Inazio Telleriak poltsikoratu dute lehen saria, "Geni@ Kreatibo" lanarekin. Aritz Fernandez Aranburuzabalaren "Hel-muga" lanak islatu du ongien gizonetzko eta emakumezkoen arteko aukera berdintasuna. Emakumezkoetan Vera Aldabe Gilek irabazi du lehen saria, "Cac@s silencios@s" lanarekin. Gazteen saria Arrasateko Unai Busturiak irabazi du euskarazko sailean. Gaztelaniazkoan, berriz, Bergarako Alex Ugaldek.

Hitzaldia emakumeentzat

Arrasateko Emakumeen Asanbladak antolatuta, Soledad Murilloren hitzaldia izango da urriaren 14an, ostegunean. Monterronen izango da, 19:00etan. Soledad Murillo soziologoa eta Salamancako unibertsitateko irakaslea da. Hitzaldiaren gaia: "¿Realmente tienen las mujeres tiempo para ellas?".



Alkoholarekin arazoak daukazu? Agian, "Alkoholzale Anonimoek" lagundu ahal dizute!!

Alkoholzale Anonimoak

3. areako Informazio bulegoa (Gipuzkoa) • Tel.: 943 61 93 38



KONTRATAK
IRVROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis • Tel.: 943 77 09 92 • Faxa: 943 - 79 78 14 • ARRASATE

ENRIKE DAPENA (BERTSOZALEA)

“Betidanik gustatu izan zait bertsolaritza”

Enrike Dapenak edo Kikek (lagunek esaten dioten eran) aspalditik du bertsotarako zaletasuna. Aurtengo Gipuzkoako Herri Arteko Bertsolari txapelketan, ordea, bertsozaletik bertsolarirako pausoa eman du. “Leintz” taldearekin hartu du parte, Saioa Arando, Jon Sarasua, Danel Goikolea eta Ainhoa Agirreazaldegirekin batera. Datorren saioa urriaren 8an izango dute Arrasateko Alkartun.



— Zergatik aurkeztu zara txapelketara?

— Izena emateko animatu ninduten, eta bertsotan saiatzeko bide bat zela pentsatu nuen. Betidanik gustatu izan zait bertsolaritza, baina bat-bateko bertsoak asmatzen orain bi urte eta erdi edo, hasi nintzen. Bestalde, beste bertsolari batzuekin artizeko aukera ere eman dit txapelketa honek.

— Noia eman duzu jendaurrean kantatzeko pausoa?

— Irailean hasi ginen txapelketa prestatzen. Izena ematerakoan, denbora asko genuela pentsatu genuen bertsotan trebatzeko. Baina, azkenengo momentua arte ez dugu entsegu handirik egin. Irailean, berriz, jo eta su aritu gara, egunero elkartzen ginen bertsotan egiteko AED elkartearen, Danel Goikolea, Saioa Arando eta ni.

— Zeintzuk dira txapelketa honen ezaugarriak?

— Bertsolaritza herrira zabaltzeko asmoa du, jendea inplikatzeko asmoa. Horren ezagunak ez diren bertsolariak ezagutarazteko ere txapelketa aproposa da, zalantza barik.

— Zeintzuk izan dira taldearen helburuak txapelketari begira?

— Gure burua bertsotan gogotsu aritzeko eta burua nekatzeko egin dugun erronka izan da.

— Orain arte nola joan da kanporaketa?

— Irailaren 17an Azpeitian egin genuen saioa, Oñatz taldearekin. Puntuaketari begira, 80 puntuko alde atera ziguten, baina guk egindako lanarekin gustura gelditu ginen.

— Aurkariak nola ikusi dituzu?

— Guk baino talde indartsuagoa zuten. hainbat eskolako bertsolariak zeuden, eta jarritako lanei aurre egiteko hobeto prestatuta zeuden.

— Aurrera begira zein asmo duzu?

— Bertso eskolan segitzea, bertsotan. Osterantzean, datorrena datorrela.

aste gazte

■ DIRU LAGUNTZAK

• Garapen Lankidetzan profesionalak espezializatzeko diru laguntzak, soziologian, kazetaritzan, ekonomian eta zuzenbidean lizentziadunak direnentzat. Epea: urriak 21.

■ LANA

• Txatxilipurdik gazte-eragi-lea behar du. Hartuko dira kontuan: euskara maila, gazteekin lan esperientzia, ikasketak eta begirale titulua izatea.

• Asteazkenero jasotzen dugu asteburuan hainbat egunkaritan azaltzen diren lan iragarkien bilduma. Berri gehiago nahi izanez gero, etorri bulegora.

■ GAZTE IKASTAROAK

• Irrati lantegia: urriaren 6tik aurrera, asteazkenero, 18:00etatik 20:00ak arte. Matrikula 4.000 pta. 2.000 langabe eta ikasleentzat.

• Euskal dantzak: urriaren 8tik Santamasak arte. Ostiraletan, (19:00 - 20:30). Matrikula, 1.000 pta.

• Karibeko dantzak, sakontzeko: astelehen eta asteazkenetan (19:30 - 21:30). Matrikula: 4.000 pta. 2.000 ikasle eta langabeentzat.

• Jazz dantza eta gaur egun-go: larunbat arratsaldetan, Arrasate Musikalen. Matrikula, 5.000 pta. 3.000 ikasle eta langabeentzat.

• Argazkigintza ikastaroa, has-tapen maila: larunbatetan (10:30 - 13:30). ASA taldearekin elkar-lanean.

■ MENDI IKASTAROAK

• Mendiko Orientazio ikastaroa antolatu du Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak. Zizurkilen izango da, urriaren 23an etan 24an eta 30tik 31ra.

Berri gehiagorako:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 943 77 00 65

“Bertsolaritza herrira zabaltzeko asmoa du Gipuzkoako Herri Arteko Bertsolari Txapelketak”



Programazioa

OSTIRALA, 8

- 13:30** Albiste aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatz, sukaldaritza saioa, Igor Ezpeletarekin.
- 13:45** Musiklasik, Mozart-en Requiema.
- 20:00/20:30/21:00** Berriak
- 21:30** Astebete, Maider Osak aurkeztua.
- 22:00** Gatza eta Berakatz, sukaldaritza saioa, Igor Ezpeletarekin (Errepika).

LARUNBATA, 9

- 13:30** Jolasplast, Hamaika Magazin, Aurrez Aurre, Musiklasik, Soinuz Blai eta Astebete.

IGANDEA, 10

- 13:30** Jolasplast, Hamaika Magazin, Aurrez Aurre, Musiklasik, Soinuz Blai eta Astebete.

ASTEAZKENA 13

- 13:30** Albiste aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatz, sukaldaritza saioa, Igor Ezpeletarekin.
- 20:00/20:30** Berriak.
- 21:00** Mahai Ingurua. Gaia: zartzuela. Iñaki Olaizolak aurkeztuko du saioa.
- 22:00** Gatza eta Berakatz, sukaldaritza saioa, Igor Ezpeletarekin (Errepika).

OSTEGUNA 14

- 13:30** Albiste aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatz, sukaldaritza saioa, Igor Ezpeletarekin.
- 13:45** Mahai Ingurua. Gaia: zartzuela. Iñaki Olaizolak aurkeztuko du saioa (Errepika).
- 20:00/20:30/21:00** Berriak.
- 21:30** Guganda. Aintzane Gardokik aurkeztutako programa. Xabier Mikeo elkarrizketatuko du.
- 22:00** Gatza eta Berakatz, sukaldaritza saioa, Igor Ezpeletarekin (Errepika).
- 22:15** Soinuz Blai, Miren Gonzalezek aurkeztua.

OSTIRALA, 15

- 13:30** Albiste aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatz, sukaldaritza saioa, Igor Ezpeletarekin.
- 13:45** Guganda. Aintzane Gardokik aurkeztutako programa. Xabier Mikeo elkarrizketatuko du (Errepika).
- 20:00/20:30/21:00** Berriak.
- 21:30** Astebete. Maider Osak aurkeztua, astearen errepasoa.
- 22:00** Gatza eta Berakatz, sukaldaritza saioa, Igor Ezpeletarekin.
- 22:15** Soinuz Blai musika saioa, Miren Gonzalezek aurkeztua.

Mondragoetarrek ATB maite dute

Euskal Herriko Unibertsitateko Soziologia Departamenduak galdeketa bat egin du Arrasaten, telebista eta aldizkaria aztergai dituena. Datuak esanguratsuak dira, oso, bai horixe.

Arrasatearren %68k astean birritan ikusten dute

ATB. Horietatik erdiak baino gehiagok astean bost egunean ikusten dute.

Gehien ikusten den saioa *Berriak* da, egunero ATBk eskaintzen duen albistegia. Gauak ditu ikusle gehien, ikusleen %86k ordutsu horretan ikusten baitute

ATB. Datu hau bat dator, noski, aurrekoarekin.

Lautik hiru conforme daude ATBren programazioarekin. %84k gustuko ditu aurkezleak eta %70ek uste du Arrasate Telebista komunikabide independentea dela.



Aintzane Gardoki, Guganda saio berriko aurkezlea.

**OSORIK
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE



PEUGEOT
Salmenta eta
zerbitzua

**IBABE
GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

**ZUBIZARRETA
LANTEGIAK**

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

Zarzuetak gogoratuz

Mahai ingurua asteazkenean, 21:00

“El Caserio” zarzuela Arrasatera ekarriko dela eta, datoren asteazkenean mahai inguru interesgarria izango dugu telebistan.

Gerraostean zarzuela asko antzeztu ziren Arrasaten. Herritar asko ibili ziren lanean orduan, jo eta ke, zarzuetak antolatzen. Guridi eta Aranbarri musikariak, besteak beste, hemen izan ziren hainbat aldiz, eurek ondutako lanak zuzentzen.

“La del Manójo de Rosas”, “El Caserio”, “La Dolorosa”, “La Taberna del Puerto”, “Katiuska” eta

beste hainbat zarzuela ospetsu ekarri ziren Arrasatera.

Asteazkenean horretaz guztiaz hitz egingo dute gonbidatuek. Denak ere buru-belarri ibili ziren antolaketan edo antzezpene lanetan: David eta Juanito Arzamendi, Simon Arregi, Mari-txu Villar eta Jose M^a Mendizabal, hain zuzen ere. Bilerazuzentzen, berriz, Ignazio Olaizola musika aditua izango dugu.

Zarzuetak eta aspaldiko kontuak maite dituzuenok hortxe duzue paregabe saioa. On egin!



Gatza eta Berakatz

Sukaldaria: Igor Ezpeleta (Elizondo jatetxea)

NOIZ

Asteazkena, 13
Osteguna, 14
Ostirala, 15

PLATERA

Zurrurutuna
Gazpatxo
Mingain rollitoak

Zertan ari dira?

Koldo Rodriguez



Koldo Rodriguez, ATBko aurkezle zen garaian.

Zertan ari da Koldo Rodriguez ATBko albistegietako lehen aurkezlea? Sestaon bizi da orain, Jon Ancin biatoristarekin batera eta erlijio irakaslea da Sestaoko Saturnino de la Peña institutuan. DBHn eta Batxillergoan irakasten du. Sestaoko Caritasko zentroan, gainera, sukaldaritza eskolak ematen ditu.

Elkarriko kide da eta baztertuen arazoak konpontzeko elizaren batzordekoa. Bizkai-ko auzoetako erlijiosoen koordinakundean ere badihardu.

Koldo gasteiztarra dugu, biatorista. Arrasaten 16 urte egin zituen irakasle San Viator ikastolan. “Eskerrak eman nahi dizkiot Arrasate herriari”, esan digu Sestaotik, “eman didan guztiagatik. Arrasaten egin nituen urte haietan egin

nintzen pertsona moduan eta eskerrona baino ez dut herri horrekiko”.

ATB sortu zenean, 1990eko otsailaren 13an, Begoña Garai, Miren Bengoa eta Aitor Sarasuarekin batera, albistegia aurkezteko prestatu zen. Borondatez aritu zen urte eta erdi Berriak aurkezten. Horrez gain, Erreportajea izeneko saioa ere aurkeztu zuen eta baita Mahai Ingurua eta Hauteskundeak eta San Juanak bezalako saio bereziak ere.

Ordu asko eskaini zizkion Koldok Arrasate Telebistari, Bizkai aldera joan aurretik. Oso goi jarri zuen albiste aurkezteko maila. Pozik gogoratzen ditu hemen egindako lanak. Baita guk ere.

Eskerrik asko, Koldo, eta ondo segi!



ERAIKUNTZAK ETA INDUSKETAK

Basabe Industrialdea 4, EQ- 11 • ARETXABAETA

Tel/fax. 943 79 01 51 • Mugikorra (908) 77 28 67 • Partikularra 943 79 74 26

Sagardotegia

ITURBIETA

Aragoa auzoa
Tel.: 945 44 55 85
ARAMAIO

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Etxebizitza salgai Erguinen. Hiru logela, sukalde, komuna, egongela, berogailua eta gas naturala. Tel.: 943 79 85 33. Gaez.

• Etxebizitza salgai, Iparragirre enparantzan, S. Juan, 2 - 4. Igogailua, hiru logela, egongela, sukalde eta ganbararekin. Deitu 945 26 24 67 telefonora. 19:00-20:00.

2. Erosi

• Etxebizitza erosiko nuke Aretxa baletan. Tel.: 943 79 90 24.

3. Errentan emateko

• Etxebizitza alokatzen da Eskola Politeknikotik gertu. Tel.: 943 79 53 70.

4. Errentan hartzeko

• Ikasle batek logela bat behar du, familia batean, mantenu osoan, astelehenetik ostiralera. Tel.: 944 60 97 69.

• Ikasle batek gela bat alokatuko luke Arrasaten. Tel.: 93 14 02 68.

• Etxebizitza behar dut alokatzeko, Arrasaten. Tel.: 606 06 96 75.

• Ikasle batek gela bat alokatuko luke etxebizitza batean, Arrasaten. Tel.: 943 79 47 85.

5. Etxeak osatzeko

• Bi neska euskaldun behar ditugu Deustuan (Madariaga kalea) etxebizitza osatzeko. 17.000 pta. Tel.: 943 79 58 22.

• Pertsona bat behar da Donostian etxebizitza osatzeko, Antigua. Tel.: 943 79 79 12.

• Bi neska behar ditugu Leioan, etxebizitza osatzeko. Tel.: 945 45 52 67.

• Mutil bat behar dugu etxebizitza osatzeko Makatzenan. Tel.: 943 77 12 42. Iban. Lan orduetan.

GARAJEAK

10. Errentan hartzeko

• Garaje itxia alokatzen da Olarte kalean. Tel.: 943 79 16 39.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Press ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

• Altamiran dagoen 59 m²ko lokala salgai. Tel.: 943 79 66 62.

14. Errentan emateko

• Lanean diharduen negoziola (gozokidenda) alokatzen da Kontzeziño kalean. Tel.: 943 77 10 97.

• Erdialdean dagoen taberna alokatu edo eskuz aldatzeko prest gaudete. Tel.: 617 37 42 37.

• Gimnasio bat errentan jartzen da. Tel.: 943 77 07 06.

LANA

17. Eskaintza

• 23 urteko mutila lanerako prest. Informatikan ondo moldatzen naiz, erabilerari dagokionez. Tel.: 619 15 44 06. Fco. Jose Martinez.

• Neska prest umeak zaintzeko. Tel.: 943 71 53 74.

• Lanak, apunteak, era guztietako agiriak... ordenadrez pasatzen

ditut. Tel.: 943 79 07 64 eta 619 15 44 06. Fran. 24 orduz.

• Emakumea lan egiteko prest arratsaldeetan, etxeko lanak, lokalen bat garbitu, edo pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 943 77 10 20.

• Ospital laguntzaile diplomaduna prest zaharrak eta gaixoak zaintzeko. Auto handia daukat. Tel.: 609 77 01 33.

• Neska prest garbiketa lanak egiteko, orduka. Tel.: 943 71 53 74.

• Emakumea prest pertsona nagusiak zaindu eta etxeak garbitzeko. Tel.: 600 60 05 31.

• 34 urteko emakume esperientziaduna jatetxean (jangelan) lan egiteko prest. Arrasaten edo ingurutan. Tel.: 943 77 10 25. Mezua utzi.

• Neska euskalduna prest dendan saltzaile moduan lan egiteko. Esperientziaduna. Tel.: 943 79 37 68.

18. Eskaerak

• Zerbitzariak behar dira jatetxe batean lana egiteko. Tel.: 943 78 35 26.

• Neska euskalduna behar da denda batean lan egiteko. Tel.: 943 76 60 16.

• Larunbatetan eta igandeetan Arrasate hotelean lan egiteko neska edo mutila behar da. Tel.: 943 79 73 22.

• Sukaldari esperientziaduna behar da prestatutako jakiak saltzen dituen tokian lan egiteko. Tel.: 943 77 06 12.

• Pertsona bat behar da umeak zaintzeko, orduka lan eginez. Tel.: 943 79 16 09.

• Sukaldaria behar da jatetxe batean, arratsaldeetarako. Tel.: 943 77 00 78. 21:00etatik aurrera.

• Iturgintzan esperientzia duen pertsona bat behar da. Deitu lehenbailehen. Tel.: 943 77 01 19 edo 943 79 19 19.

• Neska bat behar dut umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Autoa behar da. Tel.: 943 71 50 92.

• Esperientzia duen ile apaintzailea behar da, Deba Garaian lan egiteko. Deitu 607 42 84 79 telefonora.

• Neska bat behar da sukaldean lan egiteko. Titulu edo esperientziaduna. Kontratoa egiteko aukera. Tel.: 943 79 11 15.

• Pertsona bat behar da Web orriak programatzen dakienean. Lan zehatz bat egiteko. Tel.: 629 41 59 47.

• Pertsona bat behar da Aramaion, pertsona nagusiei gaez laguntzeko. Tel.: 616 99 86 09.

• Bordatuak egiten esperientzia duen pertsona bat behar da. Arrasate ingurukoa. Tel.: 943 79 10 43.

• Esperientzia duen jostuna behar da, Arrasate ingurukoa. Tel.: 943 79 10 43.

• Neska bat behar da arratsalde denda batean lan egiteko. Euskaraz egitea ezinbestekoa da. Interesatuok bidali zuen datuak 259 posta kutxatilara.

• Pertsona bat behar da umea zainitzeko. Tel.: 943 77 17 97 eta 639 45 85 08.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Pianoan lizentziadunak, pianoa erakusteko eskola partikularrak ematen ditu. Maila guztiak. Tel.: 943 79 24 14.

• Ingelez eskolak ematen ditut. Lan mugatuak, egun osoan. Tel.: 943 79 18 70.

• Lehen eta Bigarren Hezkuntzarako eskola partikularrak ematen dira,

euskaraz edo gaztelaniaz. Tel.: 943 79 83 46.

- Esperientziadun neska OHOKO eskola partikularrak emango lituzke euskaraz nahiz gaztelaniaz. Tel.: 943 77 17 20 eta 943 79 25 09. Ana.

- Gitarra elektrikoko eskola partikularrak ematen ditut, hutsetik hasita, maila guztiak. Tel.: 666 69 28 69. Jose Luis.

21. Eskaerak

- Pertsona bat behar da DBH 2. mailako eskola partikularrak emateko. Tel.: 943 79 45 55. Jon.

- Euskara irakaslea behar da goi mailako eskolak emateko, astean behin edo birritan. Tel.: 943 76 26 57.

MOTORRA

23. Saldu

- Suzuki 50 cm³, 10.000 km. egina, gida baimenik barik ematekoa. Salgai Tel.: 943 79 82 06.

- 1998an erositako motorra salgai,

50 c.c., 200.000 pta. Egoera onean. Tel.: 943 79 58 45.

- Yamaha XT 350 salgai. Txuri-gorria. B-BJ. 11.200 Km. Kutxa, bi burubabes, giltzarrapoarekin. Prezioa: 375.000 pta. Tel.: 607 44 38 10.

- Yamaha XJ 600. Egoera onean eta ITVa pasatuta. Merkea, bi maleta opari. Tel.: 943 79 26 35. Eguerdi eta gauean.

- Motor berri-berria salgai. Honda NTV 650, 11.000 kilometro, estra eta guzti Tel.: 943 79 20 40. 20:30etik aurrera.

DENETARIK

26. Saldu

- Arropa lehorgailua salgai, aire beroa eta guzti. Ez du instalaziorik behar. Tel.: 943 77 18 41.

- Lanean ari den negozioa eta furgoneta salgai. Interesatuok deitu 656 72 24 53 telefonora.

- Spaniel-Breton arrazako txakur kumeak salgai. Interesatuok deitu 943 79 19 63 telefonora.

- Kanadiar kanpin denda salgai, abanze eta guzti. Oso merke. Tel.:

943 79 23 69. Gauez.

- Auto gainean eramateko kutxa salgai. Tel.: 943 79 23 69. Gauez

- Pigini esku soinua salgai, 120 eta 58 botoiduna, egoera eta prezio onean. Tel.: 943 79 70 28.

- Fagor markako izozkailu etzana salgai. 300 litro. 20.000 pta. Tel.: 943 79 58 79.

- Logela bat saldu nahi dut. Gereziendo egurra, 1,35eko ohea, armairu handia, bi mesilla eta komoda bat. Berri-berria dago eta itxura klasikoa du. 60.000 pta. Tel.: 943 71 42 19.

- Esku soinua salgai, 96 bajukoa. Egoera onean, oso prezio interesgarrian. Tel.: 943 79 73 18.

- Salomon Evolution eskiak salgai. Egun batean erabili. 205 neurrikoak. Fijazio eta guzti. Prezio onean. Tel.: 943 79 26 16. 13:00-13:30. Tel.: 943 79 68 31. Urtzi.

27. Erosi

- Esku soinua erosi nahiko nuke. Pigin 100. Tel.: 943 79 53 36, arratsaldez.

29. Eman

- Hilabete bateko artzan txakurra oparitzen dut. Tel.: 943 79 17 51.

31. Galdu

- Zubillaga eta Arrasate bitartean sabueso arrazako txakurra galdu dut. Hiru hilabete dauka, gorrixka kolorekoa eta lepokoa darama. Tel.: 943 79 11 36 eta 943 79 48 02.

33. Bestelakoak


- Jar zaitetz sasoiaren energia unibertsalaren bidez. Era guztiakoa gaitasunak, estresa eta beheraldiak barne. Deitu konpromisorik gabe. Tel.: 943 79 45 74.

- Musika talde batek lokala behar du entsaiatzeko. Tel.: 943 79 81 19.

HARREMANAK

35. Kontaktuak


- Emakume gazteak gizona ezagutuko luke lagun edo erlazio egonkor bat mantendu asmoz. Tel.: 639 23 59 70.



ANTZUOLAN. HERRI BARRUAN

8 ETXEBIZITZA FAMILIABAKAR
ADOSATUAK, LORATEGIAREKIN
LASTER ERAIKIKO DIRA

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK: 943 76 90 00





L 933. urteko Santa Agedako jaietakoa da argazkia. Musika ikasten zebilen lagun talde hau. Zenbaitetan, ikasitakoarekin hor zehar ibiltzen ziren kantu-kantari.

Ezkerretik hasita, lehenengo ilaran: Jose Barrutia, Juanito Leibar, Dionisio Zabarte (txapelduna), Antonio Agirre eta Pedro Agirre (orain Aita Benito)

Bigarren ilaran, gizonen-

gandik hasi eta ezkerretik eskuinera daudenak dira: Santa Agedako gaixo bat, langile bat, ezezaguna, Patxi Nafarrete (gazte txapelduna), Jose Garate, On Julio Velasco (hauxe zen musika irakaslea), Manolo

Garate, Jose Maria Zubizarreta eta Luis Aiastui.

*Argazkia eta berriematea:
Patxi Nafarrete.*



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



**Canas
Esteban S.L.**
ERAIKUNTZAK

**Eraikuntzak
orokorrean**

Olaran, 22 - 3. ezk.
Tel.: 943 77 11 63 • Faxa: 943 79 81 80
ARRASATE

PRIMERA BERRIA 5 urteko bermearekin



**Km. mugagabeak
NBA Balazta bizkorrak
Xenon argiak
ABS etxetik
Klimatizazioa**

Aldi bi

Zigarrola, 1 • ARRASATE • Tel.: 943 71 20 02 • Faxa: 943 79 65 65



ARRASATE
KIROLAK

Kirol bakoitzari erantzun bat


TERNUA
OUTDOOR GEAR



Kontzezlno, 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 46 12